

# Hegats

LITERATURA ALDIZKARIA

[52]

**Genero  
ñabardurak  
lerro artean**







KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza

**Gipuzkoa**  
BERRIA



**Idazkuntza Kontseilua:**

Josu Jimenez Maia eta Juan Mari Apaolaza


**Zenbaki honetako koordinatzaileak:**

Josune Muñoz eta Gema Lasarte

**Irudiak:** Concetta Probanza

**Maketazioa eta inprimaketa:**

Antza komunikazio grafikoa



Zemoria kalea, 25 behea

20013 Donostia

Tel: 943 27 69 99

Posta elektronikoa: [eie@idazleak.eus](mailto:eie@idazleak.eus)

ISSN: 1130-2445

Lege Gordailua: SS-359/90

*Euskal Idazleen Elkarteak ez ditu derrigorrean beregain hartzen Hegats aldizkariko kolaboratzaileen iritziak.*



<b><i>Aitzin solasa</i></b>	
Jasone Osoro.....	7
<b><i>Emakumea eta literaturaren kontzeptuaz jirabiraka</i></b>	
Laura Mintegi.....	9
<b><i>Axola al dio kopuruak?</i></b>	
Nerea Azurmendi Zabaleta.....	27
<b><i>Maskulinitate berriak euskal literaturan: irakurketa proposamen bat</i></b>	
Gema Lasarte.....	45
<b><i>Aurelia Arkotxa eta Tere Irastortzarekin solasean</i></b>	
Amaia Alvarez, Onintza Irureta eta Josune Muñoz.....	77
<b><i>Aingeru suzko ezpataduna</i></b>	
Mariasun Landa.....	99
<b><i>Amaren musupolka</i></b>	
Maite Esnal Gonzalez.....	103





## **Aitzin solasa**

Alaine, Maribel, Uxue, Anuntxi, Nora, Aintzane, Yolanda, Begoña, Leire, Itxaro, Junes, Isabel, Rosa, Katixa, Arrate, Ekhiñe, Amaia, Onintza, Inma, Karmele, Iratxe, Ixabel, Oihane, Maite, Mari Karmen, Enkarni, Idoia, Aizpea, Garazi, Udane, Sonia, Maria, Ione, Amagoia, Arantxa, Tere, Ainhoa, Ana, Irati, Goiatz, Mariasun, Goizalde, Lupe, Aitziber, Eukene, Ainara, Itxaso, Laida, Elena, Miren Agur, Antxiñe, Laura, Alaitz, Marijose, Lourdes, Eider, Danele, Castillo, Marikita, Yurre, Maribi, Dorleta, Carmen.

Euskal idazleen izenak dira goikoak. Horietako bakoitzak denbora hartu du idazteko eta ausardia izan du argitaratzeko. Ausardia izan duela diot ze, literaturan ere, emakumeak kanpora begira bizi nahi badu, berehala hasiko zaizkio ahotsak burrunban; kanpoko zein barruko ahotsak. Bere buruan sortzen diren zaratak, txikitari ondo baino hobeto ikasi zuena errepikatuz, alegia, lasaiago biziko dela plazara atera gabe. Bere buruan sortzen diren zurrumurru horiek etengabe gogoraraziko diote espazio publikoa maskulinoa dela, plazandreak ikusezintasun batera kondentatuak daudela. Izan ere, emakume baten ahotsa aldarri bihurtzen denean, gizarteak bere buruan erein zuen hazi horrek fruituak ematen ditu, eta berehala hasten da damua, isilik egotea akaso hobe lukeela sinestaraziko dion landare haragijalea.

Barne ahots horien parean sortuko dira kanpoko eraso isilak, esanaz emakume izateagatik argitaratu diotela; emakume izateagatik agertzen dela prentsan; emakume izateagatik emakumeei zuzendutako literatura idazten duela, arina; emakume izateagatik emakumea eta literatura beza-

lako mahai-inguruetan egon behar dela, edo, hau bezalako monografikoetan, berriz ere, eta beti bezala, emakumeaz eta literaturaz.

Edonola, hasi gara ikusezintasun horretatik aldentzen. Hasi gara geurea ere baden espazioa geureganatzen. Hasi gara geure beldurrak uxatzen edo, gutxienez, beldur horiekin bizitzen eta idazten. Mercé Rodoredak zioen: *“Idaztea gustatzen zaidalako idazten dut. Exageratua izango ez balitz, nire burua maitatzeko idazten dudala esango nuke. Bide batez, idazten dudan hori beste norbaiti ere gustatzen bazaio, bikain. Agian sakonagoa da. Akaso nire izaera finkatzeko idazten dut. Banaizela sentitzeko”*. Horra, gustatzen zaigulako idazten baitugu. Eta hasi dira emaitzak. Poliki, iraultzak horrela egin behar baitira, poliki; baina emakumea eta literatura koloretako irudiekin jantzita ikusiko dugun garaia bertan da. Geu hasi gara sinesten. Eta irakurlea ere bai.

Arestian zerrendatutako izen gehienak abizen eta aurpegi batekin lotzen ditugu. Hori zerbaiten seinale da, horregatik, seinale hori bistaratu egin behar da, normalkuntza lortzeko biderik zuzenena baita. Ikusten bada, existitzen da. Eta ikusten ez bada ere, existitzen da. Geu ere, izan, bagarelako.

**Jasone Osoro**  
EIEko Lehendakaria

# **Emakumea eta literaturaren kontzeptuaz jirabiraka**

Laura Mintegi

## **Sarrera**

2014an Sareinak taldeko emakumeei otu zitzaien mahai-inguru batean biltzea 27 urte lehenago, 1987. urteko maiatzaren 11tik 15era, Jakin aldizkariak antolatu zuen hitzaldi sortan parte hartu zuten emakume idazleak. 1987ko hitzaldietatik sortu zen Jakin-eko 45. zenbaki monografikoa, “Emakumea eta Literatura” izenburua zeramana. Eta 2014ko mahai-ingurutik sortu da Hegats aldizkari honetarako monografiko berria, 27 urte lehenago egindakoaren berrirakurketa izan nahi duena.

Honela bada, 1987an egin nuen “*Emakume-literatura: zer da eta zertan da*” artikuluari berrikuspena egitea dagokit orain, orduan esandakoari gaur egungo begiekin begiratzeari alegia.

## **Gaiarekiko ardura**

Ezinegonetik sortutako artikulua izan zen hura. Jakin nahi nuen zertan zen diferente emakumeek egindako literatura. Kontuan hartu behar da bi urte lehenago, 1985ean alegia, askoren artean egina genuela “*Aurten ere diferente izanen da*” liburu kolektiboa. Batetik, belaunaldien talka irudikatu nahi genuen (aita hiltzeko beharrian freudiarra jota) eta, bestetik, estetika berria jarri nahi genuen agerian, aurretik zetorkigun literatura enkortsetatuari proposamen berriak eskaintzeko.

Diferentziak diferentzia, kontua da Jakin-erako artikulua hartan ere ekin niola aztertzeari ea alderik ba ote zegoen emakume batek eta gizonezko batek egindako lan literarioen artean; ea zertan zegoen aldea; ea aldea berezkoa zen –hau da, emakume-izaera ezberdinuaren ondorioz atzeman zitekeen diferentzia– ala kulturala zen bata bestearengandik ezberdintzen zuen faktorea. Ardura horrek abiarazi ninduen artikulua egitera, batez ere maiz suertatzen zitzaigulako “emakume eta literaturaz” hitz egin beharra jendaurrean, eta predikua egin aurretik komeni da norberak jakitea zertaz ari den.

Gaia ez genuen guk aukeratu. Orain 30 urte inguru herri herri eta aretoz areto jarduten genuen emakume idazle apurrak, emakume jaiotze soilak egin gintuen aditu, halabeharrez egin ere. Hitzaldi-antolatzaileek eta editoreek bihurtu gintuzten jakitun, norberak nahi izan ala nahi izan gabe.

Plazan aritzeko ekin nion gaia aztertzeari, eta kanpotik zein barrutik aztertu nahi nuen. Kanpotik, jakin nahi nuen nondik zetorren “literatura femeninoa”ren marka eta zergatik gutxien zen letren munduan. Emakume idazle guztiak –adina, ezaugarriak edo jatorria edozein dela ere– eta egindako genero guztiak –poetika, prosa kostunbrista ala abangoardiakoa– atal bakarrean sartzea injustua da, sailkapena ez baita egiten idazle bakoitzak egin duenagatik, baidarik eta jaiotzatiko markagatik. Eta inork ez du erabakitzen emakume ala gizon jaio.

Bestalde, barrutik ere aztertu nahi nuen literatura “sektorial” hori, eta ikusi ea ezaugarri komunak zituzten. Ikusi nahi nuen ea nobelagile horiek guztiek antzeko irizpideak zituz-

ten fizkioaren gaia aukeratzeko orduan, pertsonajeak tratatzerakoan, hitzak aukeratzean edo esaldiak osatzerakoan.

Hasieratik aitortuko dut egia: zenbat eta gehiago landu gaia, orduan eta gutxiago dakit, gero eta ziurtasun txikiagoa dut, eta gero eta zalantziatiago egoten naiz gai honen inguruan.

Mito batzuk apurtzen saiatu nintzen, eta garai berriek lagundu dute agerian jartzen mitoak baino ez zirena, egia da. Gaur egun inork ez du uste kalitatezko literatura egiteko eruditismora jo beharra dagoenik; intimismoa ez da mediokritatearen sinonimo dagoeneko; emakumeen baldintza sozioekonomiko berriek eragina izan dute lan literarioen gaietan eta pertsonaia femeninoak zein maskulinoak poliedrikoagoak dira garai bateko pertsonaia lauak baino. Beraz, orduan esaten genuen bezala, *“egoeraren aldaketak izaeraren aldaketa ere ekar dezake, eta ekartzen du”*, Simone de Beauvoir-ekin bat eginda.

Baina, gaiaren ifrentzuan, oraindik ere nagusi dira espazio itxiak emakumeek egindako literaturan, leihorik ez duten eremu mugatuak atzematen dira testu literario gehienetan; idazleek oraindik maniatu behar dituzte arrotz zaizkien hitzak, eta izugarri kostatzen zaie esangura propioa ematea maileguz hartutako lexikoari, honezkero sema eta zama ideologikoa baitu. Emakumeek ez dute soinetik kendu “emakume eta literatura” marka murriztailea, eta belaunaldi berriko idazleei entzundako kexak aditzean nozitzen dugu ezer gutxi aurreratu dela emakume idazleen estatusen: emakume hauen arrangura ezaguna egiten zaigu zaharragoi, oraingo emakume idazleen multzoa handiagoa, sendoagoa eta pluralagoa izan arren.

## **Zertan egin den aurrera eta zertan ez**

Bi ziren (eta dira) emakumeek “homologarriak” izateko zituzten (eta dituzten) oztopoak. Batetik baldintza soziologikoak, Virginia Woolf-ek bi hitzetan laburbiltzen zituenak: gela propioa eta urtean 500 libera edukitzea gutxienez. Bestetik, baldintza psikologikoak ditugu, Simone de Beauvoir-ek zehatz-mehatz definitu zituenak: emakumea ez da jaiotzen; egin egiten da. Edo, bestela esanda, gizarteak ezartzen du zer den “emakume” izatea, bere funtzioak, balioak, izaera, ideosinkrasia. Eta, artez ala sotil, jakinarazten zaio jaiotzen den une beretik, neskatoari trataera berezitua emango baitzaio, mutikoari ematen zaionarekin alderatuta.

Baldintza sozio-ekonomikoak aldatu dira ehun urtean, egia da. Emakumeak badu gela eta badu dirua baina, hala ere, emakumeek (bereziki ama diren emakumeek) beren denboraren hondakina eskaintzen diote sorkuntzari, eguneroko zeregin guztiak amaitu ostean, sormen-lana bizio pribatua bailitzan.

Baldintza psikologikoak aldatzea zailagoa da beti. Ezkurtuko (eta ageriko) misoginia dagoen gizartean, eremu publikoan diharduen emakumea emakume frakzionatua da, hautsia. Sortzailearen aldaera publikoa aintzat ez bazaio hartzen pribatutasunean, eskizofreniara kondenatzen da emakumea: sortzaile izaera ukatzen zaio, jarduera publiko edukitzeagatik peajea ordainarazi egiten zaio eta, sarri askotan, berak ere bere buruari muga ezartzen dio, autozentsura, bere jardun profesionala apalduz edo mugatuz, kasu batzuetan betiko uzteraino.

Urte hauetan guztietan aurrera egin da hainbat arlotan (emakumeen formazio akademikoa, euren presentzia lan

munduan, amatasunaren kontrola), baina beste hainbate-tan ezer gutxi aurreratu da (beirazko sabaia ez da desagertu eta zaintza-lanak emakumeen ardura izan ohi dira nagusiki). Oraindik orain beharrezkoa izaten da kanpoko eta barneko muga horiek agerian jartzea. Eta, hala ere, garai bateko mugimendu feministaren eragina apalduz joan da, batez ere borroka feminista instituzionalizatu eta erakundeek beren gain hartu dituztenetik emakumeen esku-bideak.

Jakin-eko artikulua idatzi genuen garaian balantzaka ibiltzen ginen bi teoria feministen artean, orduan kontra-jarriak zirenak, eta bataren ala bestearen aldeko hautua egiteko behartzen genuen geure burua: “berdintasunarena” (*gizonak bezalakoak gara, ez dago alderik*) eta “diferentzia”-rena (“*handicap*”-tzat hartzen diren ezaugarri femeninoak –*intseguritatea, sentiberatasuna, ahuldadea*– *bertute bihurtuko ditugu*). Diferentziaren teoria aurreko mendeko 60ko hamarkadan sortu eta 70ekoan Estatu Batuetan indartu zen mugimenduetan elikatzen zen; hauen ekarpena izan zen marjinala edo gutxietsia zena, lotsarazteko motiboa izan ordez, harrotasunez aldarrikatzea. “*Black power*” mugimenduak “belztasuna” aldarrikatzen zuen moduan –batzuetan bortitz aldarrikatu ere– “diferentzia”-ren aldeko emakumeek aldarrikatzen zuten lehiakortasun eza, boterea eskuratzeko anbizio falta, gorputzaren ziklo emeen garrantzia, intseguritatearen izaera bitala eta afektuen nagusitasuna arrazionaltasunaren gainerik.

Diferentziaren aldarria egin beharrean, ordea, gutariko askok berdintasunaren teoria aldarrikatzen genuen, Celia Amoros-ek zioena ardatz hartuta:

*Bi modu daude garaileari men egiteko: a) onartzea bere definizioak kulturari, balioei, transzendentziari eta unibertsaltasunari buruzkoak, ala b) aurka egitea bere definizioei eta gure diferentzia balioan jartzea, eta garrantzitsutzat jotzea natura eta bizitzarekin, berehalakotasuna eta inmanentziarekin lotzen gaituzten balioak... nahiz eta hau guztia definizio patriarkalak onartzeko beste bide bat baino ez den. Arra da gure diferentzia asmatu duena.*

Zenbat eta frustrazio gehiago metatu emakume izate soilak ezartzen zizkigun muga eta oztupoengatik, are eta kontzienteagoak ginen ezin genuela aintzat hartu bazterkeria eta enoratu injustizia, paisaiaren parte bailiran. Lehen aipaturiko misoginia, agerikoa ala latentea, nonahi topatzen genuen. Eta argi genuen emakumeekiko mespretxua ez zela madarikazio dibinoa (eliza frankistak behin eta berriz esaten zigun arren), gizarte eredu baten ondorio inposatua baizik. Ondorioz, diferentziaren teoriak ez gintuen asebetetzen, nola edo hala onartzea zelako aurre-erabakita daudela gizaki bakoitzaren espazioa, funtzioak eta mugak gizarte zehatz batean. Berdintasunarenak ere ezin gintuen gogobetetzen, arraren estatusa gureganatzean emearen berezitasunak ukatzen genituelako.

Teoria feministak, zorionez, hirugarren bidea topatu zuen, “berdintasuna ezberdintasunaren barruan” (“*ez gara berdinak, baina aukera berdinak nahi ditugu*”), eta hirugarren bide honek asebate zuen emakume askoren gura: gizona gizonen gizarte berean bizi nahi genuen, baina beren neurrira egindakoa aldatu nahi genuen eta gurera moldatu. Literaturara ekarrita, letren munduan zegokigun lekua



aldarrikatzen genuen, gizonezkoen pare, baina gure estetika literarioa defenditzen genuen, gure kosmogonia, gure ideosinkrasia, nire lexikoa, gure kadentzia, beste edozeinena bezain bestekoa.

Egia osoa esateko, berdintasunaren aldeko jarrera hartan, hasiera batean uste genuen gizonezkoek bezalaxe idatzi behar genuela eta ezertan ez zela atzeman behar emakume baten idazlana zenik. Montserat Roig-ek zioenez, *“gizon-buruaz eta emakume-gorputzaz idatzi izan dut, aitortzen dut. Badakit jakin hauxe dela eskizofreniarako lehen pausoa. Orain jakinaren gainean nago. Nire gorputza eta nire izpiritua ametitzen saiatzen ari naiz”*.

Emakume askok emetasuna aldarrikatu baina, aldi berean, eredu patriarkala bereganatzen eta errepikatzen zuten, genuen.

Ordutik hona 27 urte joan dira eta gauzak ez dira gehiegi aldatu. Batetik, ezinegona ez da baretu. Oraindik orain zaila da asmatzea zer den emakume izatea, gizonezkoekiko “berdinak” ala “desberdinak” garen, zein puntutaraino gure erreakzioak berezkoak diren ala erasoei aurre egiteko eraiki ditugun ihardespen-pultsuak. Lacanek zioen emakumea ez dela existitzen, eta esaldiak hasarrarazten bagintuen ere, ez zaio arrazoa falta. Emakumea konstruktua da, egiteko dagoen egitate bat. Babes-oskola egin dugu etsai-eremuan jarduteko eta zaila da asmatzea zein sakeraino barneratu den oskola eta non hasten den emakume izaeraren “eremu naturala”, berezkoa.

Gaur egungo teoria feminista batzuk oldarkorragoak dira ordukoak baino. Emakumetasunaren alde erasotzailea agertzen dute batzuetan, musikan edo artean mugimendu

alternatibo batzuek agertzen duten antzeko mezu oldar-korra bereganatuta. Jakiteko dago, beste behin ere, jarrera horiek berezko izaera bati erantzuten dioten ala ez ote diren taktika berri bat eremu ukatuan jarduteko.

Berezkoa ala ikasitakoa den, kontua da emakume izaera dagoela ezbaian. Garena gara norberak eraiki duenaren arabera. Eta eraikitako hori ere, ezegonkorra da: gure aurreko belaunaldietakoek (eta gutariko askok ere) bizitzaren erdia baino gehiago eman zuten barkamena eskatzen emakume jaiotzeagatik. Eta badirudi ondorengo belaunaldikoek bizitza erdia emango dutela sistemari kontua hartzen emakume jaiotzeak eragin dien kalteagatik.

Bi jarrerak, ordea (barkamen-eske ibiltzea ala kontu hartzen aritzea) ez dira “naturalak”; ikasitakoak dira, erantsiak. Zein da, izatez, emakumearen berezko jarrera? Zer da emakume izatea?

### **Literaturan eman diren aurrerapausoak**

Aipatu dugun honek guztiak eragin zuzena du emakumeek idatzitako literaturan. Egileak literaturan islatzen du bizi duen gizartea, literatura garaiaren alaba den heinean.

Hiru fase bereiz daitezke emakumeek egindako literaturan: *garai femeninoa* (eredu “tradizionalak” onartzen eta errepikatzen ditu), *garai feminista* (eredu “tradizionalei” aurre egiten die; gaiak eta pertsonaiak erreaktiboak dira) eta, azkenik, *emakumearen garaia* (eredu propioen bila dabilena).

Pentsatu nahi nuke hirugarren garaian gaudela eta literaturak utzi diola erreibindikapen hutsa izateari edo –txarragoa dena– antigoaleko estereotipo berberak errepika-

tzeari, bere horretan. Pentsatu nahi nuke emakumetasuna emakume bakoitzak sortzen duela eta, behingoz utzi diogula emakume planta egiteari eta ekin diogula emakume gisa idazteari; edozertaz idatzi (gaiak mugatu gabe) baina emakume begiradarekin, emearen talaiatik.

Kolektibo jazarri guztiek bezala (beltzak, proletarioak, euskaldunak...) emakumeek ere gehiago idatzi izan dute barnera begiratzeko kanpora begiratzeko baino, bere buruaz mintzatzeko munduaz mintzatzeko baino.

Pertsonaia femeninoak izan dira emakume idazleen *so-sias* naturalak eta hauen pozak eta penak islatu izan dira haiengan: zer nolako ardurak zituzten egileek, halako jarrera agertzen zuten haien eskutik sorturiko pertsonaiek.

Horrexegatik beti suertatu zait deigarria pertsonaia femeninoek nolako jarrera adierazten duten pertsonaia maskulinoekiko. Fikziozko gizonetzkoiei aurpegiatzen die-te ez dutela asetzen pertsonaia femeninoek duten espektatiba-maila beraiekiko. Insatisfakzioa –gizonarekiko insatisfakzioa bereziki– konstantea da emakumeek idatzitako literaturan, maitasunerako espektatibak bete ez direlako sentazioa (gizonezkoari aurpegiatzen zaio ez dela gai jasotako hainbat maitasuna itzultzeko). Pertsonaia femenino askorengan konstantea da kexa, beren bikotekideek eginahalak eginagatik ere, ez baitute asmatzen estaltzen emakumeak duen hutsune afektibo sakona.

Emakumeen espektatiba infinitua da, dio Lacanek. Eta espektatiba ez asetzeak frustrazioa dakar, erresumina eta mingostasuna. Lacanek ez zuen jakin azaltzen zergatik den infinitua emakumeen espektatiba maitasunarekiko, eta ondorioztatu zuen emakumeen orgasmoa dela infinitua, ase-

gaitza gizonen ahalmenerako. Emakumea multiorgasmikoa denez, ez dago gizonik asebate dezakeenik; eta Lacanek aho horzdunaren moduan irudikatu zuen bagina. Marrazo baten ahoa.

Nik, ordea, uste dut emakumearen insatisfakzioa ez datorrela orgasmorako ahalmen mugagaitzetik, baizik eta estrukturan egokitu zaion lekuak sorrarazten dion ezinegonetik. Pertsonaiak estrukturalak dira, hots, estrukturaren barruan leku bat hartzen dute, eta estruktura hori gizonak eraikitakoa da. Gizona erreferentzia eta osotasuna da (Lacanek BATa deitzen duena) eta emakumea, deseroso egon arren, egokitu egiten da esleitu zaion espaziora (Bla, Lacanen terminologian). Egitura zaharrari aurre egin eta egitura berria proposatu ordez, gizonari egiten dio aurre, beraren aurka isurtzen ditu frustrazioak, dedikazio falta eta korrespondentzia eza. Eta, modu honetan, egituran segitzen du emakumeak, “dagokion” espaziotik irten gabe.

Psikoanalistek ez zuten ikusi infinitutasuna ez datorkiola emakumeari orgasmo aseezinetik, baizik eta egituran egokitu zaion espaziotik, ezin ditu-eta bete beraren espektatibak espazio horretan kokaturik dagoen artean. Emakume-estrukturala emakume-subjektu bihurtu arte ez du betetzerik aipatu gabezia. Zulo beltzen erara, hutsuneak xurgatu egiten du eskaintzen zaion oro, eta ez-nahikoa izango da beti. Horrexegatik bagina horzduna Lacanen iruditerian, aseezina, infinitua, beti gose.

Hutsunea betetzea ezinezkoa izanik, soluziobide bakarra da egitura berria egitea, emakume-subjektu berriak bere egitura eraikitzea. Hori egin ezean, emakumearen espektatiba beti izango asegaitza. Estruktura propioa eraikiz gero,

ordea, ikusiko dugu ea orgasmoak zerikusirik duen emakumeen kexa etengabeen ala, kontrara, ez duen inolako erlaziorik.

### **Pribatutik publikora eta berriz ere pribatura**

Beste pentsalari batzuek, ordea, uste dute emakumea infinitua dela bere eremua infinitua delako, pribatuaren eremua alegia. Ez dute lotzen infinitua maitasunarekiko espektatibarekin, ezta orgasmo anitzerako gaitasunarekin ere, baizik eta emakumeek jardun ohi duten eremuarekin. Pribatuaren espazioan ez dago jakituria maskulinorik: pribatu femeninoa potentzialki infinitua da, zeren, gizon publikoari esleituriko espazioa kenduta, beste espazio guztia pribatua baita, bere eremua.

Pribatuak markatu du emakumeen literatura. Leihorik gabeko espazioak deskribatu ditu, isilunen eta begiraden lurraldean murgiltzen da, giza harremanak izaten dira geografiaren mugarriak, eta orriotara ekarri dituen espazioak ez dira toki fisikoak, bizi-espazioak baizik, pultsio bitalek zedarritzen duten lur-eremuak. Pribatuaren arloan literatura sortzea eragozpen bihurtu da idazle askorentzat, sinesgarritasuna mugatu ziezaiekeelakoan. Eta beste askorentzat, aldiz, pribatutasuna askatasunaren eremua da, berezko ingurunea, eragin maskulinorik gabekoa.

Marguerite Yourcenarrek zioen ez dela sinesgarria emakumeen literatura, pentsaezina delako emakumeak ahotsa bereganatzea. *Contradictio in terminis* dela, alegia. “Memorias de Adriano” liburuaz zioenez: “Ezina zitzaidan, bestalde, irudi zentralizat pertsonaia femenino bat hartzea (...) Emakumeen bizitza mugatuegia da, edo sekretuegia. Emakume

*batek bere historia kontatzen badu, lehenik jaukikatuko zaiona zera da, jadanik emakume ez izatea, hain zuzen. Aski zaila bada, bestela ere, gizon baten ahotik egia apur bat bildu ahal izatea”.*

Eskuin-ezker jo zuen Yourcenarrek. Emakumeen literatura ez da sinesgarria eta gizonezkoena gezurtia da. Yourcenarren iritziz emakumeek idatzitako literaturari sinesgarritasuna falta zaio protagonistak emakume-subjektu diren unetik, emakume izateari utzi eta gizonezko bihurtuko direlako.

Zorionez, Yourcenarrek bizi izan zuen garaia eta gaur egungoa ez da garai bera. Beauvoirrek aurreikusi zuenez, emakumeen egoera soziologikoa aldatzeak eragin du baldintza subjektiboak ere aldatzea. Eta, bestetik, urteek aurrera egin ahala, gero eta lausoagoa da sexuak bereizten dituen baldintzapen sozialak eta xumeagoa da generoen arteko lubakia. Batetik, ontzat ematen badugu ez dagoela emakume generikorik, gizonezko generikorik ez dagoen bezalaxe ezin izango genuke mintzatu emakume mota bakar batez. Eta, bestetik, generoa bera ere ez delako kontu erabakiorra, *Queer* teoriak agerian jarri nahi izan duen moduan.

*Queer* mugimenduak sexu-orientazioa eta genero eta sexu-identitatea zalantzan jarri ditu. *Queer* hitzak ingelesez “arraro”, “bitxi”, “ez ohiko” esan nahi du eta jatorrian homosexualei irain egiteko erabiltzen bazen ere, generoen inguruko uste konbentzionalak zalantzan jartzen dituztenek berreskuratu dute.

*Queer*-zaleen arabera sexu-orientazioa eta genero eta sexu-identitatea gizarte eraikuntzaren ondorioa dira, eta

beraz, ez dago biologikoki aurre-determinaturiko sexu rol edo joerarik. Generoa asmakizuna dela aldarrikatzen dute, gerora sortzen dela generoa. Bestela esanda, ez-generoa erreibindikatzeko dute.

Eta berriz itzultzen gara hasierara: emakumea konstruktua da, eraikitzeko dagoen egitatea. Nola eraiki, nola osatu, hor datza gakoa. Berdintasunetik ala diferentziatik abiatuta; ohiko bi generoak aintzat hartuta ala bi genero baino ez daudenik ukatuta.

Celia Amorós-ek zioen “*ez dut emantzipazioaren bide zuzenetan sinesten, ezta zentzu bakarreko forma bakar baten existentzian ere*”. Ez dago bide zuzena ezta bide bakarra ere. Nork bere bidea segitu beharko du. Eta bideari ekitea bezain garrantzitsua izango da abiapuntua zein den jakitea; nondik abiatzen garen, alegia.

LEKU batetik idazten dugu, pertsonala eta trukatu-ezina (generoak, hizkuntzak, kulturak, kosmogoniak zehazten duten lekua). Funtsezkoa da jakitea leku hori NON kokatzen den, zein ahotsekin mintzatuko garen, zein den erreferentzia-eremua. Eta ez dezagun ahaztu, beste behin ere, mintzatua izan ordez, mintzatzea dela ezinbestekoa –Pie-rrre Bourdie-ren arabera, horretan datza kontrakulturaren oinarria–. Mintzoak eraikitzen du diskurtsoa, izaera eratzen du. Mintzoak egiten gaitu. Izena da lehenik, eta berak eratzen du izana.

## **Lengoaia, generoaren sortzailea**

Hitza eskuratzea boterea bereganatzea da. 70eko hamarkadako feminismoak erakutsi zigun emakumeak baduela

sortzeko ahalmena, baina gizonezkoak izendatzekoa duela, eta izenak ematen du izana: izendatu arte izana ez da.

Jakin-eko artikuluan luze aritu ginen hitzaren eta esaldia-  
ren garrantziaz, eta orduko hartan esandakoa berretsiko  
nuke gaur egun ere. Hitza ideia baita (beraz, ideologia da,  
ideia-multzoa), esanahia du, sepsia, sema eta zama, araua  
transmititzen du. Hitza menpeko duenak menpeko du gau-  
zen esanahia.

Orduan esandakotik haruntzago joanda, eta kontuan  
harturik emakume idazleak maileguan hartzen dituela  
berek ez diren hitzak, bidea jorratu beharko genuke as-  
matzeko nola jabetu lengoaiaz. Dekonstrukzio lana egin  
beharra du hitza bereganatu nahi duen orok: bere horretan  
erabili aurretik, zama ideologia deserantsi eta esanahi  
berria eman.

*“Through the Looking-Glass, and what Alice found there”* li-  
buruan Lewis Carroll-ek jaso zuen Humpty Dumpty-ren  
eta Alice-ren arteko elkarrizketa. Humpty Dumpty-k  
diotso Alice-ri: *“nik hitz bat erabiltzen dudanean, hitz ho-  
rrek esan nahi du nik nahi dudana, ez gehiago ezta gutxiago  
ere”*. Eta Alice-k erantzuten dio: *“Arazoa da ea zeuk eman  
ahal diozun hitz bati zeuk nahi beste esanahi”*. Eta Humpty  
Dumpty-k zera ihardetsi dio: *“Arazoa da nor den nagusia,  
hori da guztia”*. Boterea duenak agintzen du zer esan nahi  
duen hitzak.

Emakumea, bere buruaz jabetzeko, aurretik desjabetu  
behar da ustez bere izaera denaz. Zeren, ez baitago ema-  
kume-izaerarik oinarrituta ez dagoenik bere aldaera nega-  
tiboan: ez-gizon izaeran. Lacanek zioen moduan, *“la femme  
n’existe pas”*. Hau da, *“emakumea ez da existitzen, emaku-*



*mea gizonaren ametsa da; emakumeak daude*". Lacanen arabera, ez dago emakumeA, bakarra eta generikoa, baizik eta "emakumeak", eta banan banan dira emakume. Ez dago identitate femeninorik edo, bestela esanda, ez dago emakumearen signifikante unibertsalik. Gizonaren signifikante unibertsala, ordea, bada izan, "gizon" kontzeptuaren pean genero guztiak izenda baitaitezke, maskulinoa eta femeninoa, edo ez bata ez bestea ez dena. Gizona den-dena da, gizona gizakia da.

Lengoaia, diogunez, errealitate sortzailea da. Eta literaturgileek darabilten lengoaia, lengoaia estandarra da (maskulinoa, definizioz). Lengoaia honi kontrajarrita berezko lengoaia erabili nahi izan dutenean, genero-lengoaia sortu nahi/behar dute emakume idazleek (femeninoa, markatua).

Badago alderik bi lengoaien artean. Lengoaia estandarrek abstrakzioa du ezaugarri nagusi; ez du markarik, neutrotzat jotzen da maskulinoa izendatu arren; ez du erreferente espazialik edo tenporalik; eta ez du lotura sentsorialik hartzaileekin, ezta igortzen ari deneko lekuarekin, unearekin edo berezitasunekin ere.

Genero-lengoaia, ordea, ukimen-lengoaia da, sentsoriala, begiradek, soinuek eta sentsazioek elikatzen dute, eta egokitu egiten zaio noiz, non eta nori aldagaiei. Modu sotil baina nabarian moldatzen zaie unean uneko ezaugarri berezituiei.

Lengoaia hau, emakumezkoek zein gizonezkoek erabili dezaketen lengoaia hau, ez da garatzen bakarrik literaturgintzan. Gizartearen arlo ezberdinetan sortu/erabili ahala joango da aberasten. Arlo sektorialetan ari da sortzen genero-lengoaia parekidea, tokian tokiko jardueretan, gizar-

te-eremu ugariatzen, eta berezitasunekin harbera, sentikor, mintzaideengandik xurgatu egiten ditu partikula kognitibo txikiak eta, honela, diskurtsoa aberasten du, ikusmira-gu-neak dibertsifikatzen ditu, ahots berriak gehitzen dizkio diskurtso ofizialari. Finean, esanahiak ugaritzen ditu eta ahalmen komunikatiboa sendotzen du. Lacanen terminologiaz esateko, proposatzen dugun genero-lengoaia honetan signifikatu berriak ari dira garatzen signifikanteak dioenetik haratago. Edo, bestela esateko, signifikanteak ez du bakarrik adierazten sinbolikoa; lengoaia intuitibo honek lekua egiten dio imajinarioari, imajinarioei, ahots aniztasunak hedatzen duelako signifikantearen muga.

Guk genero-lengoaia izendatu dugunak ez du zerikusirik aitzikiak aldatzearekin, diskurtso maskulino zurrunaren barruan “*los*”/“*las*” gehitzearekin, edo @ erabiltzearekin, zeren “*todxs*” moduko baliabidea usatzeak ez baitu bermatzen hartzailea diskurtsoaren barruan integratuko denik. Lengoiak hierarkizatua izaten segituko du, zorrotza eta arautua, eta ustezko aldagai lexikalek ez dute “feminizatzen” diskurtsoa.

Genero-diskurtsoa ez da eksklusiboa emakumearena, edozein gizakik erabaki baitezake lengoaia integratzailea erabiltzea, modu kontzientean eta konprometituan. Lengoaia honek komunikazioa du helburu, *feed-back*-ean oinarritzen da, bakarriketaren ordez elkar-hizketa bilatzen du, hartzailea igorle izatera bultzatzen du eta, finean, norabide biko komunikazioan sinesten du, norabide bakarrekoaren kaltetan.

Honelako lengoiaz elikatzen da Dorothy Richardson-ek deitzen zuen “esaldi femeninoa”. Virginia Woolf-ek

berak esan zuen halaxe zela, Richardson-ek “asmatu” zuen esaldiak berezitasun femeninoak zituela: *“Asmatu du, eta asmatu ez badu ere, bere beharrianetara moldatu du; genero femeninoaren esaldi psikologikoa dei genezakeen esaldia da. Esaldi zaharrak baino fibra elastikoagoa du, neurrigabe luzatzeko, airean partikula hauskorrenak eramateko, eta forma lainotsuenak biltzeko ahalmena duena. Emakume esaldia da, emakume mentalitatea deskribatzeko erabiltzen delako zentzuan”*.

“Esaldi femeninoak” eta “esaldi maskulinoak” ote dauden albo batera utzita, duda gabekoa da hitza bereganatzea dela izana duen orok bere buruari ezarri behar dion lehenengoetariko erronka: izena jarri bere izanari. Sortzaileak hitza du lanabes eta bere lehenengo ardura da sormen-tresnaz jabetzea, erraminta bereganatzea. Hitza bere egin beharko du, zehaztasunez mintzatuko baldin bada.

### **Amitze aldera**

Aurretik ere esanda dago: zenbat eta gehiago hausnartu gaiaz, gero eta ziurtasun gutxiago dut. Orain 27 urteko zalantza berberak ditut gaur egun ere. Oraindik ez dakit emakume idazleek egiten duten literaturak berezitasun berezirik ote duen. Ez dakit emakume-izaera existitzen den, norainokoa den jaiotzatikoa eta norainokoa erantsia.

Literatura interpelazioa da. Literaturaren zeregina ez da erantzunak ematea, galdera egokiak planteatzea baizik. Eta artikulua honek ere ez du pretenditzen egitea literaturak berak egin ezin dezakeena: ez da bere asmoa galderei ihardestea, ezta baieztapen erabatekoak ematea ere. Galderak plazaratzeari ekingo diogu aurrerantzean ere, hurrengo 27

urteetan eta gehiagotan, ea noizbait asmatzen dugun emakume izatea zer den, zein kategoriatan sartzen den emakume idazlea, gainontzeko idazleengandik aparteko atala behar duen, ala ez.



## **Axola al dio kopuruak?**

Nerea Azurmendi Zabaleta

“Hor daude oraino 1970-1980 belaunaldiko emakume idazleak. Sekula bezain sendo. Euskal literaturak ez ditu denak errekonozitu, baina berdin, lanean segitzen dute, batzuk galerna ederrak zeharturik, egia esan. Gainera, belaunaldiak berritzen dira eta ahotsaren iraupena segurtatua da”, esan du Itxaro Bordak. Eta Ana Urkizak galdetu du: “Emakumezko idazlea euskal literaturaren parte dela esango zenuke?”. Erantzuteko orduan Miren Agur Meabek hartu du aurrea: “Bai, gero eta gehiago. Hala ere gauza bat da urtero emakumeak plazaratzea, emakumeak idatzitako lanen kopurua haztea, eta beste bat lan horiek zer balorazio jasotzen duten, praktikan kanona nork eta nola definitzen duen”.

Itsusi geratuko ez balitz, Ana Urkizaren *Zortzi unibertso, zortzi idazle* (Alberdania, 2006) liburuko 308. eta 380. orrialdeetako zati bana elkarri josita osatu dudan elkarriketa labur eta gezurrezko horretan utziko nuke nire ekarpena, beste ezer erantsi gabe, azkenerako tesiren batera hurbiltzeko gauza baldin banaiz, Borda eta Meaberen hitzek planteatzen dutenetik oso hurbil geratuko bainaiz, haiek bezain ederki azaldu gabe. Ondo hezitako emakumea naiz, baina —eta baliabideen erabilera iraunkorra ez dadin nagikeriarekin nahastu— emandako hitza beteko dut, prezioa betelana bada ere. Testu honen muina, alegia, maileguan hartutako aurreneko paragrafoan datza.

Izenburuak badu, haatik, bere zera. ‘Kopuruak ez dio axola’ idatzi nuen lehenik. Baieztapen kategorikoa, ez bairik gabea, zalantzatik haragokoa. Ziurtasun gehienekin gerta-

tzen zaidan bezala, iraunaldi laburrekoa izan zen aurreneko burutaldi hura. Konturatu nintzen, batetik, irudimen eta ekimen urritasuna disimulatzeke-edo zenbakien babesera biltzen den kontable-gizarte honi kopurua, tamaina bezala, asko inporta zaiola; bestetik, hobe nork bere erantzuna atontzea. Nire kasuan, gainera, 27 urteren bueltan orrialdeotara ekarri nauen bidea zenbakien aitzakian abiatu zen 1987an. Historian zehar euskaraz idatzi duten emakumeen zentsu halako bat egitea egokitu zitzaidan horrenbeste urtez bizirik irautea lortu duen ‘Emakumea eta literatura’ gai zikliko, iraunkor eta inkonbustibleari emandako 45. Jakin hartan. Itxaro Bordak hiru urte lehenago Txertoan argitaratu emandako *Emakumeak idazle. Antologia eta ohar zenbait* esku batean, oraindik ere gurasoen jangelaren erdia jaten duen Auñamendi entziklopediak literaturari emandako bolumenak inguruan eta Donostiako Udal Liburutegiko fitxak dantzan nituela osatu nuen zerrenda. Internetik eta horrelako aurrerapenik gabeko garaietan, munta hartakolan bat egiteko berariazko prestakuntza barik.

## **Zenbakien garrantzia**

Lan hari buruz zera idazi zuen Mari Jose Olaziregi Alustizak<sup>1</sup>: “Era berean, guztiz interesagarria da Nerea Azurmendi idazle eta kazetariaren artikulua ere. ‘Emakume idazleak euskal literaturan’ titulupean, historia desberdinetan ‘ahaztuak’ izan diren egileen lanak gogoratzen zituen eta ehundik gora idazle aipatzen”. Eskertzen diot benetan nota, nahiz eta gehiago eskertzen diodan denboraren

---

<sup>1</sup> Olaziregi, M.J., 1999, Intimismoaz haraindi: emakumezkoek idatzitako euskal literatura, Donostia: Eusko Ikaskuntza, Oihenaar. Cuadernos de Lengua y Literatura 17.

joanari izen-deituren ondotik 'idazle' titulua ezabatu izana, gauzak bere tokian jartze aldera. Aitortu behar dut modu baldar samarrean egindako lana izan zela hura. Ez dut sekula ukatu. Ez zait ordea batere damu. 'Ehundik gora' hori (ez zen, apika, erabat zehatza, baina asmaziotik ere gutxi zuen, gehiago zen eskuzabaltasun indiskriminatu samarraren fruitua) zenbaki kabalistiko halakoa izan zen bolada batean, fundamentu gehiagoko lanen faltan. Nolabait esateko 'gorpuztu' egin zuen historian zehar izan diren emakume euskaldun idazleen –zein joko interesgarria, hiru hitz horien ordena aldatzea– itzal lausoa. Kontuan izan behar da euskal literaturaren historia 'kanonikoetan' azaltzen ziren 261 izenetatik sei bakarrik zirela emakumezkoenak. Gaur egun Nevada Renoko Unibertsitateko Euskal Ikasketen Zentroko irakasle emeritu den Linda White doktoreak egin zituen kontuak. 1996an aurkeztu zuen tesian –'Emakumeen Hitzak Euskaraz: Basque Women Writers of the Twentieth Century'– 124 emakume idazle zerrendatu zituen, horietako 20, itzultzaile.

Zenbakia gora zenbakia behera, kopurua, orduan, oso inportantea zen. Hori uste nuen (eta uste hari eusten diot), baina argi neukan halaber ezinbestekoa zela ia gordin-gordinean emandako izen-abizen motroiloa bahe xehetik pasatzea. Gerora jakin dut, Aritz Galarragak Itxaro Bordaren 'Emakumeak idazle' hari egindako kritika arkeologikoan<sup>2</sup>, hori '*name-dropping*' egitea dela. Itxaro Bordaren lanak ez dakit etiketa hori merezi ote duen. Nireak bai. Bete-betean. Balio erantsi handirik gabeko zerrendatze baterako

---

2 Aritz Galarraga, Oharrak gehiago / Argia, 2014-01-19 [Kontsulta: 2014-10-30]. <http://kritikak.armiarma.com/?p=6011>

dotoreegia ere iruditzen zait ingelesezko deitura, egia nahi baduzue.

Orduz geroztik, bat edo beste gelditu da zerrendatze soilean, baina bahetze lan oso-oso finak egin izan dira, asko, atzoko eta gaurko emakume idazleei edo idazle emakumei buruzko ikuspegia zertxobait aldatu eta izugarri aberastu dutenak. Inguruko orrialdeetan barreiatuta dituzue horietako zenbait. Akaso falta zaiguna da, berpiztealdi modukoa izan duen 'Emakumea eta literatura' ikuskizun ibiltariaren baitan aspaldikoak elkartu gintuen ekitaldi batean Tere Irastortzak esan zuen bezala, kasurik gehienetan izen-abizen baino ez diren haien lanak irakurtzen hastea.

Beraz, fundamentuzko lanak taxuzko eskuetan dauden honetan, ikuspegi bikoitza dakarkizuet: irakurlearena eta transzendentzia bokaziorik gabeko kazetariarena; zein baino zein xumeago. Bata guztiz subjektiboa, irakurle bezala pilatu dudan esperientzia mugatuan oinarritua, eta bestea azalekoa, literaturaren hau beste gai askorekin batera landu duen kazetari intranszendenteari dagokiona. Batak zein besteak luzeak direlako daukate batik bat interesa, interesik edukitzekotan.

### **Irakurlearen bizipenak**

Datorrela lehenik irakurlea. Umetan, iragan mendeko 60ko hamarkadan eta hurrengo hamarkadako lehen urteetan, irentsi egiten nituen liburuak, kriterio eta gupidarik gabe. Kintako gehienon oroitzapenak oso antzekoak izango direnez ez dut luze jardungo. Esan soilik bereziak suertatu zitzaizkidalako gogoratzen ditudan liburu ugarien artean ez dagoela euskarazkorik, bakar bat izan ezik: Txo-



min Agirreren *Garoa*. Hiru gauzak eman zidaten atentzioa liburu hartan, ondo akordatzen naiz: denak auskalozer'tar ginenean azalean Domingo de Aguirre ikusteak; baserriaren izena Zabaleta izateak (familiartekotzat neuzkan) eta, aurreko bien gainera, gaiaren eta liburuaren beraren oso gainera betiere, euskaraz idatzita egoteak. Gordeta daukat liburua, pare bat aldiz aldatu diot plastikozko forrua, eta azaleko gizona zertan ari den argitu gabe jarraitzen dut: pipa pizten edo txirula modukoren bat jotzen?

Euskarazko letra-gose ginen. Ni banintzen behintzat. Hain nintzen gose non, ordurako gaztetxo, hozkadaka irentsi nuen Luis Haranburu Altunaren *Itsasoak ez du esperantzarik*, azaleko karakola eta guzti. Gaztelaniazko liburuari dagokienez, Martin Vigil-en eta Pearl S. Buck-en fasean nenbilen, oso oker ez banago. Lehenagokoa izan arren, niri geroxeago iritsi zitzaidan Ramon Saizarbitoriaren *Egunero hasten delako*. —Bua, Gisèle!— Eta gero, adin nagusitasuna estreinatu berritan eta nerabegaroko ajeen artean kokatu beharko litzatekeen behin-behineko idazle bokazioak jota artean, Arantxa Urretabizkaiaren *Zergatik panpox*. Julio Cortázarrekin seko maiteminduta nenbilen garai hartan, *Rayuela* ordena posible guztietan irakurtzen-eta, baina *Zergatik panpox* irakurtzeak hatzak entxufe batean sartu izan banitu bezala astindu ninduen, ez bakarrik eleberriaren beraren eraginez, ezusteko ekuazio baten aurrean jarri ninduelako baizik.

Ez naiz orduz geroztiko irakurketa denetan pausatuko, baina iruditzen zait 'errebelazio' haiek eta ondorengoak aintzat hartu behar direla ulertzeko zergatik den garrantzitsua kopurua, zergatik den inportantea, Itxaro Borda-

ren hitzak baliatuta berriro, “belaunaldiak berritzea” eta “ahotsaren iraupena” segurtatzea. Zeren eta letra-gose ez ezik letra-zurtz ere baginen euskaraz idatzitako literatura-ri dagokionez, zer esanik ez emakumezkoek idatzitakoaz. Eta ‘ginen’ esaten dudanean, 80ko hamarkadaren hasieran hogeitaz urteren bueltan genbiltzan neska gazte arruntei buruz ari naiz. Beste profil batzuetakoek izango zuten seguru-erik non eta nondik edan, baina guk ez, eta letra larriz idatzitako Kulturarentzat eta haren zaindarentzat garrantzi gutxiokoa baginen ere, ez ginen gutxi.

Irakurle zein etorkizunik gabeko idazlegai gisara ama ponte-ko dezente neuzkan literaturaren alorrean. Virginia Woolf eta Simone de Beauvoirren bidesaria ordaindu nuen noski, baina Marguerite Yourcenarrek, Patricia Highsmithek eta Nadine Gordimerrek osatzen zuten nire Hirutasun Santua. Bazen besterik, baina tartean ez zegoen euskaldunik. Arantxa Urretabizkaiak luzatu zidan, beraz, hor nonbait zebilen zerbaitekin bat egiteko aukera banuela iradoki zidan aurreneko haria. Beti poesia irakurle kaskar samarra izan banaiz ere –inor ez da perfektua–, Amaia Lasaren *Nere paradisuetan* ere lagun izan nuen inimiziaz luze moduko hartan. Gizonetzko idazle ugariaren lanak ere bai, noski. Handik urte gutxira, helduen eta lanaren mundura sartu berritan, Itxaro Bordaren *Basilika* heldu zen; beste astindu bat.

Garai haietan etxean azaldu zen liburu baten harira, ohartxo bat haur eta gazte literaturaz. Liburua, *Txan fantasma*. Egilea, Mariasun Landa. Azaleko esaldia, ondo gogoratzen badut, “kariñoa... kariñoa falta da etxe honetan”. Oharra, ezinbestekoa baina ezinbestean laburra, emakume idazleen eta haur eta gazteei zuzendutako letren arteko

harreman estu eta oparoari buruzkoa. Helduentzako literaturak ez bezala, hari luze bat bota du belaunaldien artean bere baitan genero denak hartzen dituen literatura-genero honek (genero den edo ez den, beste kontu bat da hori). XX. mendea zeharka daiteke besteak beste Maddi Ariztia, Marijane Minaberri, Enkarni Genua, Mariasun Landa eta ondoren etorri direnak lotuta. Bigarren oharra, hau ere derrigorrezkoa eta motza derrigor, literatura-itzulpen-gintzan jardun diren eta diharduten emakumeei zor zaie, asko baitira, eta onak. Eta bien artea, besteak beste, Maite Gonzalez Esnal, literatura tailerren eta irakurketa taldeen bitartez etengabe sustatzen irakur zaletasuna eta euskal literaturaren jendarteratzea. Irakurlei buruzko gogoeta ere beharko litzateke ikuspegia osatzeko, bide batez.

Digresio luzearen ondoren, goazen atzera emakumeek egindako euskal literaturaren aurreneko 'boom'-arena izan omen zen iragan mendeko 80ko hamarkadaren erdialdera. Gainontzekoei zer gertatzen zitzaien ez dakit, baina nik amonarena egingo zidanik ez nuen aurkitzen euskarazko literaturan, amarena egiteko modukorik ere ez. Faltan ematen nituen arren, aurrekoek ez bezala baneuzkan behintzat izeba gazteak, ahizpa nagusiak, adin bertsuko lehengusinak... Banituen ereduak, iturriak, euren liburuen bitartez baino ezagutzen ez nituen urrutiko konplizeak. Gaur, kasu askotan sasoi betean jarraitzen duten lehen uneko bidaide haiekin batera, badituz ahizpa gazteak, alabak, hilobak, bilobak laster. Askori berealdiko txorakeria irudituko zaio, emekeria txepela, eta ez zait asko inporta hala bada, baina nik asko estimatzen dut irakurle bezala horren ondo inguratua egotea, eta nahikoa dut horrekin.

## Kazetariaren talaia

Kazetariaren txanda orain. Ofizio edo dena delako honekin zerikusia duten saltsa askotan ibili izan naiz, lapikoz lapiko, han eta hemen mokoka, ezertan gehiegi entretenitu gabe. Hizpide dugun gaira hain zuzen 1987ko saioak eta hark piztutako interesaren arrimuan-edo antolatu ziren 'emakumea eta literatura' gaiari buruzko 'bolo' ugariek hurbildu ninduten. Gerturatu bezala urrundu nintzen, harik eta 2006 urtearekin batera gaztelania nagusi (oso nagusi) den egunkari bateko kultura atalean lanean hasi nintzen arte. Hasi eta segituan, hilabetera-edo, Karmele Jaio Eigurenen *Amaren eskuak* eleberriaren aurkezpena joatea tokatu zitzaidan. 2004ko Igartza bekaren emaitza zen lehendik ere literaturan bere bidetxo egina zuen kazetari eta idazle gasteiztarraren lehenengo nobela. Oso gogoan dut Arantxa Urretabizkaiak egin zion aurkezpena. Horratx arestian aipatutako belaunaldien arteko lokailua, Donostiako Koldo Mitxelena Kulturuneko areto nagusi goibelean gauzatu. Arratsaldean erredakziora joan nintzenerako, irakurrita neukan liburua, bazkariaren kaltetan. Pasarte hark jarri ninduen berriro, besteak beste, 'emakumea eta literatura' moduan. Akzesita lortu zuen Peru Magdalenaren *Lile* biharamunean irakurri nuen. Liluratu egin ninduen.

Bizipen partikularrak alde batera utzita, uste dut ikuspegi orokorretik ere baduela garrantzia 2006ko otsaileko egun hark. 2004. urtean Jaio izan zen sei urte lehenago sortutako Igartza beka (Elkar argitaletxea, Beasaingo Udala eta CAF enpresa ditu babesle) irabazi zuen aurreneko emakumea. Lista luze bateko lehena, 2005etik 2012ra segi-

dan etorri baitziren, hurrenez hurren eta 2006ko beka eskuratu zuen Jon Martinen salbuespen bakarrarekin, Uxue Alberdi, Katixa Agirre, Eider Rodriguez, Uxue Apaolaza, Garazi Kamio, Goiatz Labandibar eta Danele Sarriguarte. Ondarruko Udalak eta Elkar argitaletxeak antolatzen duten Augustin Zubikarai bekaren irabazleen artean ere emakumeen presentzia bikaina denez –Irati Jimenez, Itsaso Arake, Garazi Kamio, Garbiñe Ubeda edota aurtengo edizioan nagusitu den Jasone Osoro datozkit burura–, eta bi bekek hautatutako proiektua kaleratzea dakartenez, bistakoa da azken hamarkadan presentzia polita izan dutela emakumeek euskal literaturan, kopuruari dagokionean berderen. Iazko eta aurtengo Igartza beka bi mutilek irabazi izanak –Mikel Ayllonek eta Unai Villenak– ziklo aldaketa ote dakar? Ez egin barre, hori baino tontokeria askoz ere handiagoak esan izan dira goiko zerrendako nesken kontura.

Aurreko bi hamarkadetako lanak ez bezala, idazle ‘berriak’ eta haien lan asko plazara heltzen bertatik bertara ikustea tokatu zitzaidan, Donostiako San Jeronimo kaleko udal liburutegiko katekonba itxurako sotoan gehienak; udaberriko uztaldian edo Durango aurreko zorabioan, segun. Sariei lotutakoez gain (hor sartu beharko lirateke halaber Erein Opera Prima zena bitan irabazi zuen Aitziber Etxeberriaren bi eleberriak zein Irun Hiria lortutako Dorleta Urretabizkaiaren nobela), besterik ere izan zen. Garaiko mozkinak begiratuta azaltzen zaizkit Irati Elorrieta, Garazi Goia, Sonia Gonzalez, Itziar Madina, Leire Bilbao, Iratxe Esnaola, Aitziber Olaizola... Zehatza izan nahi ez duen zerrenda honetan (prentsaurrekoen banaketan niri

‘tokatu’ zitzaizkidanez ari naiz...) aurreneko lanak lehenxeago argitaratuta zeuzkaten 70eko hamarkadan jaiotako hainbat idazlek ere badute tokia, hala nola Jasone Osorok, Ixiar Rozasek, Castillo Suarezek, aurreko hamarkadako azken urteko Ana Urkizak...

Bien bitartean, aurreko hamarkadetako en lanean jarraitzen zuten. Amaia Lasa, Mariasun Landa, Arantxa Urretabizkaia, Itxaro Borda, Amaia Iturbide, Aurelia Arkotxa, Laura Mintegi, Arantxa Iturbe, Miren Agur Meabe, Yolanda Arrieta edota Tere Irastortza azaltzen zaizkit mozkinetan, besteak beste. Eta milurtekoa estreinatzeko atarian debut arrakastatsua egin zuen Lourdes Oñederrak. Zerrendatze zehatza izateko asmorik gabe moldatutako izen multzo honetan, Euskal Autonomi Erkidegoko idazle ugari ez ezik, Iparraldeko eta Nafarroako idazleak ere emango ditu batek baino gehiago faltan, Maiatz aldizkariaren inguruan zebiltzanak batez ere. Ez daude hemen ziren guztiak, ezta gutxiago ere, nire iruzkinetan agertzen direnak baizik, eta gipuzkoarzentzismo editoriala neronek aitortzen dut, beste inork igarri eta salatu aurretik. Asko gelditu dira kanpoan, baina kasu honetan kopuruak ez dio tesi nagusiari gehiegi eragiten.

Irakurle eta kazetari bezala, izugarri atsegina izan zen belaunaldi berri haren ekarpenak zuzenean jasotzeko aukera izatea. Irakurle nintzenetik lan batzuk asko gustatu zitzaizkidan, beste batzuk normal eta bakarren bat batere, baina kritikaria ez naizenez, nire kolkorako gordeko dut sailkapen partikularra. Bakarrik esango dut ‘labur’ eta ‘irakurterraz’ ez ditudala iraintzat hartzen, eta irudipena daukadala ez naizela horrela pentsatzen duen irakurle bakarra. Kaze-

tari lanerako, berriz, ez dakizue zenbat estimatzen genuen askok aurkezpen haien... Nola esango nuke? Normaltasuna? (Oharra: normaltasuna gutxietsita dagoela uste duen horietakoa naiz), Beren istorioak zekartzaten. Kontatzen zuten kontatu beharrekoa, aurkezten zuten liburua, entzuten zuten euren hitzen aurreko aurkezpenetan 'ahots propioa' zutela (esaldi fijoak, iruzkinetan baieztatu dut) eta bakoitza bere lanera. Bide batez, begiratu horietako askoren curriculumak eta atera kontuak eta ondorioak. Hortik aurrerakoa liburuaren eta irakurlearen arteko harremanaren baitan uzten zuten jeneralean, eta kitto.

Egia da ez zitzaiela medio guztietan (eta ez naiz ari he-dabideez) harrera bero-beroa egin. 'Erasmus literatura' eta horrelakoak gogoan izango dituzue. Uste dut egon zela kode-talka moduko bat, eta ez (nagusiki) jenerazionala, belau-naldi kideren batek ere ondo astindu baitzituen. Edonola ere, ez naiz gai horretan luzatuko. Irati Jimenezek 2011ko azaroan Gara egunkarian argitaratu zuen *Dena emakumea euskal literaturan*<sup>3</sup> artikulua irakurtzea edo berrirakurtzea gomendatzen dizuet. Niri dagokidanez, orduan irakurri eta entzundako zenbait iritzik euskarazko hiztegian bi hitz edo horien ordeko egokiak falta ematera eramán ninduten: dizplizente eta kondeszendiente. Aspalditxoko garaia dira ordeak, eta itxuraz idazle gehienak atera dira onik eta kementsu ataka hartatik, aurrekoak kritika suntsitzaile askotatik atera ziren bezalatsu. Ez diot kontuari buelta gehiago emango, baina ahaztekoa ere ez da.

---

3 Irati Jimenez. Dena emakumea euskal literaturan / Gara, 2011-11-19 [Kontsulta: 2014-10-30]. <http://gara.naiz.eus/paperezkoa/20111119/304375/eu/Dena-emakumea-euskal-literaturan>.

Aipatu nahi dut, azkenik, denboraren edo ebidentziaren poderioz salbuespen kutsutik askatu den ‘fenomeno’ haren eragin kolateral bitxi bat. Badakit askori garrantzi gutxikoa irudituko zaiola, kaltegarria akaso, baina euskara eta euskararen ingurukoak urrun-urruneko galaxia bateko kontuak zirela uste zuten euskal herritar askori jakingura sortu zioten, kuriositatea, idazle haiek eta haien lanek. Gaztelaniazko hedabide handiren batean euskal literaturako izen gorenek baino lortzen ez zuten arreta erakarri zuten idazle gazte haiek. Ez zirela artean urrezko letratan betikotzeko moduko idazle andere txit gorenak? Gaitz erdi. Normalean pena eta horren nobleak ez diren sentimenduak pizten dituen euskarak noizbehinka inbidia pixka bat ematea oso pozgarria iruditzen zait.

### **Hogeita hamar urte eta gero, hau**

Trantsizioa motel zihoala salatzeke eta geldotasun hark sorrarazten zuen frustrazioa adierazteko sortu zuen Euskadiko Ezkerrak ‘40 urte eta gero hau’ eslogan bikaina. Nik, gai honekiko izan dudan loturaren urtemugaren abiapuntua 1984ko ‘Emakumeak idazle’ hartan jarrita, ospakizun kutsua eman nahirik birmoldatu dut. ‘Hura’ baino askoz ere hobea delako ‘hau’, eta nire begiekin ikusi dudalako heltzen, handitzen eta hedatzen ‘hura’, gaurko ‘hau’ izatera heldu arte. Adin batetik aurrera horrelakoak ospatu egin behar dira, alajaina!

Orain dela hogeita hamar urte falta zitzaizkigun elementu asko dauzkagu gaur. Literaturaz ari bagara idazleak direnez osagai printzipala, alde horretatik ez dago kexarako arrazoirik emakumeei dagokienez. 40, 50, 60, 70 eta



80ko hamarkadetako idazleak aldi berean ari dira lanean. 90ekoren bat ere bat, eta segituan azalduko dira oraindik gaztetxoei zuzendutako lehiaketetan-eta ari diren mende berrikoak. Bada atal hau izendatzeko hautatu dudana bezain erabilia izan den beste esaldi bat: autoretza erreklamazioak eta guzti dituen 'Katea ez da eten' ezaguna. Emakumeek euskaraz idatzitako literaturaren kasuan ezin dugu horrenbeste esan, ez baitzegoen zer eten. Orain badugu behintzat eta behingoz, katea.

Idazle asko produkzio urrikoak dira, ezin da hori ukatu. Askori aplika dakieke alegia kritika batetik hartutako esaldi hau: "(Halakok eta halakok) osatzen dute (X)en literatur lanen zerrenda mehe baina interesgarria". Ondorengoa ere kritika beretik hartua da, eros dezala norberak jarri nahi dion prezioan: "Ordurik behinenek eta ordurik librenek uzten dituzten beste ordu horietan idaztera animatzea, asko eskatzea izango da akaso". Bidean galdutakorik ere ez da falta, 'opera prima' opera bakarria dutenak, azaleratu ziren bezala desagertutakoak. Ez da emakumeen artean bakarrik ematen den fenomeno, noski, baina aitortu behar dut kasuren batean gustura hartuko nukeela itzulera literarioa. Aurreneko lana orain gutxi argitaratu dutenen kasuan (Itsaso Arake, Itsaso Martin, Ainara Maia, Ekhiñe Eiguren, Goiatz Labandibar, Jone Gorostazu...) denbora kontua izango da seguruenik hurrengoaren etorrera.

Nahiago dut, dena den, daukaguna ospatzea ez daukagunaren nostalgian korapilatzea baino. Izan ere, beste literatura batzuetan normaltzat jo arren gurean nobedadea den jarraitutasunaren batera, gauza bitxi samarrak ere baditugu. Esate baterako, gaztaroari auspez agur egiten

dion aroan plazarako lehen jauzia heldutasunetik egin duten emakume idazleak ere baditugu. Sautrela saioan entzun nuen bezala, 'adindurik' hasi direnak. Arrate Mardaras, Maribel Aiertza, Yurre Ugarte, Maite Toledo... Denak 60ko hamarkadan jaiok, denak ere plaza handira estreinakoz azken hiruzpalau urteetan azalduak. Fikzioan estreinakoz murgildu den Garbiñe Ubeda kazetaria ere hor kokatuko nuke eta, zergatik, ez, *Far West*-eko oihartzunak ekarri dizkigun Asun Garikano. Gaur-gaurkora mugatuz gero, 2014ko uzta ezinbestean aipatu behar da, Durangorako datozen lan berriak datozela. Azken boladan lantokian beste gauza batzuetarako naukatenez, irakurlearen esperientzia ekar dezaket soilik, eta aitortu behar du ez dela txarra izan aurten. Ana Jaka, Alaine Agirre, Ana Malagon, Danele Sarriugarte edota Jule Goikoetxea etorri zaizkigu. Besterik ere bada, noski, baina nik horiek ezagutu ditut, horien liburuak dauzkat apalategian.

Bada ezinbestean aipatu eta azpimarratu behar den hirugarren elementu bat: kritika. Jo onura publikoko baliabide izendatu beharko litzatekeen *armiarma.com*-eko kritiken hemerrotekara (1922koa du aurrena) eta eman begiratu bat. Orain arte erabilitako erreferentziari eusteko, 1984koen artean kritika bakar baten ondoan azaltzen da emazte izen bat, Itxaro Bordarena. Manex Lanatuaren *Hegatz urratua* lana zuen aztergai. Gaiztakeria txiki bat, bide batez. Honatx nola amaitzen zen Bordak urte hartantxe argitaratu zuen *Basilika* eleberriari egin zioten kritiketako bat: *Nobela honek ez du ba aurtengo urte bukaeran euskal narratiban nagusi izan den kaskartasun hori gainditu. Zailtasunik gabeko nobela dugu, erraz irakurtzen dena.* Nola aldatzen

diren gauzak, kamarada(k). Begiratu 2013koak. Gizonezkoak dira noski nagusi, baina baduzue Estitxu Martinezen, Saioa Ruiz Gonzalezen, Danele Sarriugarteren, Itziar Egiarren, edo Amaia Alvarez Uriaren ikuspegia jasotzeko aukera. Beste hainbaten artean Ainara Maia, Iratxe Retolaza, Jone Gorostarzu, Goizane Landabaso, Karmele Jaio, Leire Zubeldia, Gema Lasarte edo Mari Jose Olaziregi ere ezin utzi aipatu gabe utzi. Genero ikuspegiak, izan bete-betean kritika feminista, izan zerbait intuitiboagoa, bai axola diola; galdera ikurrik ez oraingo honetan.

Mari Jose Olaziregirekin akordatuta, bide batez, gogoan dut nola behin Etxepare Institutuaren prentsaurreko batean erakundearen helburuak laburtzeko Leonard Cohe-*nen 'First we take Manhattan, then we take Berlin'* abestiaren hitzak erabili zituen. Manhattan osoa hartzeko dezente falta zaio emakumek idatzitako literaturari, eta nekez egingo dugu emakumeok bide hori bakarrik, baina hurrengo helmugatzat jo daitekeen Berlin non dagoen jakiteari garrantzitsua deritzot. Nire ustez, bada emakumezkoen presentzia nahiko urria duen sistemaren atal inportante bat: edizioarena. Badirudi gai honi buruzko edozein lanetan sistemari eta kanonari buruz hitz egin behar dela ezinbestean, eta sistemaren muin-muinean dago neurri handi batean hori mugiarazten duen dimentsio ekonomikoa, enpresa-dimentsioa. Eta, azken hilabeteetan ni enteratu gabe gauzak asko aldatu ez badira, hor ez dago emakume askorik.

*Ni guztiz sistematik kanpo dagoen idazle sentitzen naiz, "outsider" totala zioen Arantxa Urretabizkaiak Zortzi unibertso, zortzi idazle* libururako Ana Urkizak egin zion elkarrizketan. *Euskal Literaturak horrela, hitz handitan esanda,*

ez dit axola. Bakar batzuek erabakitzen dute une bakoitzean zer den baliagarria euskal literaturan. Lau editorek, bi kritikarik, kapila baten inguruan bildutako idazle batzuek, Laura Mintegiren hitzak. Ez dakit orduan esandakoari eusten ote dioten, are gutxiago dakit zein iritzi duten gaiaz idazle gazteenek. Axola die errekonozimenduak? Loa galarazten die ‘kanoniko’ ez izateak? Garapena eragozten die ustez beirazkoa den sabaiak? Eskala desberdinak erabiltzen dira gaur egun ere emakumeen eta gizonezkoen lanak neurtzeko eta aintzat hartzeko?

Ez dakit, ideiarik ere ez daukat, baina benetan zertaz ari garen jakiteko asko gustatuko litzaidake belaunaldi guztietako emakume idazleen erantzunen berri izatea 2014ra egokitutako ‘state of the art’ moduko bat finkatzeko. Bien bitartean, galdera askoz ere xumeago batekin konformatzen naiz: “axola al dio kopuruak?” Konparaziora jotzen badugu, kopurua ez da inondik ere emakumeen aldekoa. 1997ko *Euskal Kultura Gaur* lanean Joan Mari Torrealdaik idazleen artean emakumeak %10 baino ez zirela zioen. Azken urteetan %15-16ko portzentajea nagusitu da. Ez da asko. Osakidetzako medikuen artean %50a gainditu dute emakumeek. Epailen artean handiagoa da portzentajea, %64koa. Emakume idazleen errekonozimendurekin harreman zuzenagoa duten datuei dagokienez, Euskadi Literatura sariak aipa daitezke. 1982. urtean sortu zirenetik gizonezkoak 68 alditan izan dira sarituak, eta emakumean 11tan. Bere horretan, zenbakiak zuzen-zuzen islatzen dute aipatutako %16a. Saritutako emakumeak ez dira ordea hamaika, zazpi baizik: 1989an *Legez kanpo* eleberriarekin akzesita irabazi zuen Laura Mintegirengandik hasita, Itxaro

Borda, Lourdes Oñederra, Mariasun Landa, Juana Atxabal, Yolana Arrieta eta, hiru ediziotan, Miren Agur Meabek.

Kanonak ere aipatu behar da. Pepis andereñoarenak<sup>4</sup> eta gainerakoak. Askok aztertu dituzte, asko eta askotan. Euskaltzaindiaren Literatura Hiztegiaren arabera “*kanon* hitzak literaturaren arlo bateko nahiz literatura unibertsa-leko egile garrantzitsuenen lanen zerrenda adierazten du”. Euskarazko literaturaren emaitza gorenaren erakusleho ere badiren sailkapen kanonikoetan ez dago emakume askorik, ezin da hori ukatu. Bik eman didate atentzioa. Euskal kulturaren kanpo proiektioaz arduratzen den Etxepare Institutuentzat Mikel Ayerbe Sudupek prestatu zuen ‘Euskal narratiba garaikidea’ zerrendako 25 idazleen artean sei dira emakumeak: Itxaro Borda, Arantxa Iturbe, Laura Mintegi, Lourdes Oñederra, Eider Rodriguez eta Arantxa Urretabizkaia. Ia laurdena. Wikipedian XX. mendeko 18 eleberri onenen artean Arantxa Urretabizkaiaren *Zergatik panpox* azaltzen da bakarrik. Wikipedian XX. mendeko euskarazko narratibaren 25 perlak zerrendatu dituenak, berriz, le-  
rro bakar bat eman die emakumeei. Arantxa Urretabizkaiaren *Zergatik panpox*-ek betetzen du emakume izena daukan lerro bakar hori.

Zerrendek duten itxura martzial hori ez zaidanez gehiegi gustatzen, kanon hitzaren adiera musikala askoz ere iradokitzaile, integratzaile eta dinamikoagoa iruditzen zait, eta uste dut hobeto egokitzen zaiola emakumeek euskal literaturan duten presentziari. Haien ahotsak bata bestearen atzean sartzen dira, nahi ahala luzatu daitekeen alter-

---

4 Iban Zaldua, Pepis Andereñoaren Kanonak/ Volgako Batelariak 2007/06/27 [Kontsulta: 2014-10-30]. <http://eibar.org/blogak/volga/111>

nantzia aberasgarrian, kanon kanonikoan ez bezala bakoitzak beretik jartzen, ahotsaren iraupena segurtatuz.

Beraz, axola dio kopuruak? Segun eta zertarako. Ni, gutxieneko kopurua segurtatuta ikusten dudalako seguruenik, aspalditxo libratu nintzen gai honetan eta beste askotan obsesio estatistikotik. Inportanteagoa da niretzat esan ahal izatea iaz irakurri nuen libururik gogoangarriena —sailkapen absolutuan, ez soilik euskarazko irakurketekin osatutakoan— Miren Agur Meaberen *Kristalezko begi bat* izan zela. Urteari gelditzen zaizkio asteetan deskubrimendu handiren bat egin beharko dut Danele Sarriugarteren *Erraiak* liburuak eragin didan inpresioa gainditzeko. Nahikoa erantzun daukat nik horrekin.



# **Maskulinitate berriak euskal literaturan: irakurketa proposamen bat**

Gema Lasarte

## **SARRERA**

1987. urtean, idazle emakumezkoek sorturiko literatura -pertsonea maskulinoak aztertu genituen Jakin aldizkariaren 45. zenbakian; Hegats-eko zenbaki berri honetan, ostera, euskal literaturako maskulinitate berriak arakatuko ditugu. Corputa aukeratzeko orduan, hiru kontu izan ditugu buruan: hasteko, idazleak gizonezkoak izatea; bigarrenik, maskulinitate berriekin lotura zantzuak aurkitu izana haien literatur lanetan; eta, azkenik, poesia, narratiba eta antzerki alorreko paradigmatik izatea literatur lanak. Aukeraketa irizpide horien inguruan, esan beharra dago idazle gehiago daudela, baina guk ondoen ezagutzen ditugunak aukeratu ditugula. Poesian, Edu Zelaieta hautatu dugu; narratiban, Ur Apalategi, eta antzerkian, Oier Guillan. Onetsi diren literatur lanak, honako hauek dira: Zelaietaren *Aldaira urdinak*, (Alberdania, 2010); Apalategiren *Fikzioaren izterrak* (Susa, 2010) eta Guillanen *Arra. Arraroa* (Artezblai, 2012). Bukatzeko, ondorio orokor batzuk atera ditugu.

## **Oier Guillan (Arra. Arraroa antzerki lana)**

### *Sarrera*

Antzerki lan honek bost atal ditu. Lehena, lanerako testuak; bigarrena, poemak; hirugarrena, testuaren idazketan sorturiko irudiak; laugarrena, balizko dramaturgiarako oharak, eta bosgarrena, erreferentzia batzuk. Aurrera-

tu behar dugu azterketa hau, batez ere, lehen atalari lotu zaiola. Izan ere, gaia modu sakonean azaltzen da atal horretan, eta eszena-pilulak edota antzerki-lanerako eszena diferenteak aurkezten dira: 48 denera. Testua bakarriketa bat da, “baina, ez derrigorrean” (90. or.). Lehen pertsonan adierazten den ahotsa polifonikoa ere izan daitekeela iradokitzen da dramaturgiarako oharretan: “Agian gizonak bere pentsamenduaren oihartzuna den koru bat dauka atzean... ahotsen aldetik ez dago mugarik” (90. or.).

*Izenburua (Arra.Arraroa).*

Izenburua ekitaldi bakoitzarekin edota paragrafo nagusiekin dialektikan eraikia dago, testuarekin eta irakurlearekin solastatzeko pentsatua dago eta, gainera, *arraro* hitzak *queer* esan nahi du. Hain justu ere, feminismitik eratorritako hitza, eta, ingelesez, gay eta lesbianak iraintzeko termino bat da; 1990eko hamarkadan erabiltzen hasia AEBetan sexualki normatiboa ez zen guztia izendatzeko, konnotazio negatiboak positibo bihurtzeko. *Queer* teoria erabiliz, Teresa De Lauretis-ek 1991n generoari buruzko teoria bat proposatu zuen. Teoria horren arabera, identitate sexuala, genero identitatea eta joera sexuala eraikuntza sozialak dira; beraz, generoa nahiz sexua historikoak eta aldagarriak dira, eraikitakoak, asmatutakoak. Eta deseraiki egin daitezke. Eta hori da, hain zuzen ere, subjektu protagonistak izenburutik beretik iradokitzen diguna antzerki testu honetan.

### **Paradigma aktantziala**

Lehenik eta behin, literatura-lanaren paradigma aktantzialari begiratuko diogu. *Ni* subjektu bat dago, poeta modu-



ra aurkeztu du bere burua (68. eta 80. or.), potroetaraino dago –potroak dituelako– gizona zer den entzuteaz, eta objektua ideia zaharkituen depilazioa da, botereari uko egitea. Beraz, ni poetikoak esaten du gizonezkoak gizonkeriaren biktimak direla (67. or.), eta literatura-lanaren hasieran eta ondoren irakurriko ditugun paragrafoak edota ekitaldiak gizon izate hori deseraikitzeke hamar aitoren publiko izango dira. Modu esplizituan, emakumezkoak zein gizonezkoak patriarkatuaren biktimak direla esango du subjektu protagonistak. Hori dela eta, protagonistak horri buelta eman eta bere burua askatu nahi du, eta nahi horren inguruko eraikuntza izango da antzerki lan guztia.

Badago hasieratik feminizatzeko joera<sup>1</sup> bat; izan ere, poetatzat hartzen du bere burua, nitasunetik mintzo zaigu eta, gainera, ideia zaharkituak depilatu (67. or.) nahi ditu; emakumeena den edota emakumeak identifikatzeko erabilgaitako *simil*-a da hori. Ideia zaharkituak depilatzearekin oso irudi poetiko esanguratsua eta ikusgarria sortzen du. Aditz hori antzerki lanaren erdigunean kokatzen den aditz plastikoa da, eta ilearekin jokatu du, ilea kentzea emakumeen kontua delako (sinonimoa) eta, aldiz, ilea edukitzea maskulinoa izatea. Baina gehiegizkoa denean, gizona ere *tximino* bihurtzen da, eta Guillanek paradoxa horrekin jokaten du. Une batez, bere burua deskribatzeko, ironiaz, itsusien aldeko manifestua egiten du, “haietako bat naizelako” (75. or.). Ilearekin hiperbole ederra egiten du: “Begira.

---

1 Argi geratu behar da maskulinitateek nahiz feminitateek adjektibo eta ezaugarri batzuk dituztela, eta lan hauetan, hain zuzen ere, ezaugarri horien konbinazioa *continuum* bat bezala proposatzen dela emakumezkoentzat nahiz gizonezkoentzat. Ez dira, beraz, betiko instantziak ezarri nahi, baina bai erabili, bestela, ezinezkoa izango litzaikeelako maskulinitateak deseraikitzea ikerketa lan hauetan.

Ileak ditut. Leku guztietan. Oin azprietan izan ezik” (69. or.).  
Eta depilatu egiten ditu.

Bestalde, maskulinitatearen bi ikuspegi negatibotik abiatuko du diskurtsoa subjektuak: *gizonkeria*, *gizonari -keria* atzizki negatiboa erantsiko dio, deseraiki ahal izateko, eta *potroak* (gizonaren metafora), nazkatuta egotearen sinonimo gisa, edota *gizonari eskatzen zaionaz*, *gizonak izan beharko lukeenaz* (potroez) nazkatuta azaltzen da. Eta *gizon kategoriaren trataera esplizitua proposatzen du*, esaten du XXI. mendean ezin dela *gizona izan etiketarik gabe*. *Gizona adjektiboz beteta dagoela*, eta *adjektiboak munduko gauzarik estresagarrienak direla dio* (69. or.). Ondoren, aitorten publikoa egiten hasten da, bere gizontasuna deskribatzen, kontraesana dirudien arren; izan ere, etiketen eta klasifikazioen kontra azaltzen baita subjektua. *Binarismoa deuseztatzeko lan hau*, hain zuzen ere, aurrerago ikusiko dugun bezala, adjektibo kontrajarrien metaketaren edota nahasketaren bidez proposatzen da.

### **Gizon kategoriaren trataera**

Aitorten publikoetan, maskulinitate hegemonikoei erasotzen die, eta dio poeta dela, ez duela kinielarik egiten, emakumeen kontrako biolentziaren biktima izan dela, ez dakiela entxufeak konpontzen, kirolari txarra dela, bizikleta gainean desastre hutsa dela, ez dakiela bere lagunaren auto marka zein den, ez dakiela igeri egiten, apustuak egiteak gogaitzen duela eta, azkenik, batzuetan ez duela larrua jotzeko gogorik. Beraz, maskulinitate hegemonikoa hankaz gora jartzen ditu subjektuak. Sinonimiaz eta enumerazioz kargatua dago antzerki lana, autoreak inflexio gune bat bai-

tu literatur lan osoan akuilu modura: maskulinitateak. Batetik, ezagututakoak, desiratutakoak eta, bestetik, bizi nahiko lituzkeenak. Eta, horren inguruan, adarrak, ñabardurak sortuko dira, eta jira eta bueltak eta, batzuetan, enumerazio kaotikoak egiten ariko da Guillan obran zehar, subjektu protagonista instantzia narratiboa aitzakiatzat hartuta.

Hamar aitorten horiek hobeto zehaztuko ditugu. Lehenik, poesia idazten duela dio, eta sei bertso eskainiko dizkigu bosgarren ekitaldian; lehen hiru bertsoak eta bigarren hirurak errepikatu egiten dira; hitz bakar bat aldatzen da. (*Gizona naizela diot/diote/diozu*) (*eta harro/arra/arraro nago*). Gizontasuna adierazteko eta ikusarazteko hiru hitzekin jotuko du: *harro/arra/arraro*. Aliterazioak erabiltzeaz gain, hiru kontzeptuen nahasketak *gay* mugimenduaren intertestua gogoratzen digu, analogia bat egiten da harrotasunarekin (*gay*), ar eta arrarorekin. Beraz, lehen aitorpenean *queer* eta *gay*-ak gizonarekin nahasten ditu aliterazio, paralelismo eta hitz-jokoez baliaturik. Eta nitasunetik beste subjektuak aipatuko ditu (“gizona naizela diot eta harro nago”); haiek: (“gizona naizela diote eta arra nago”) eta, azkenik, zu: (“gizona naizela diozu eta arraro nago”).

Lehen eta bigarren aitortenetan bere gizontasuna deskribatzen hasten da: “modernoia, jatorra, sentsiblea, indartsua, ulerkorra, adimentsua, elegantea baina ez gehiegi, detailezalea baina pixka bat despistatua, heterosexuala”. Aurkezpen horretan eremu maskulinoak eta femeninoak nahasten ditu, binarismoa hausten du, eta *queer* eta trans-feminismoan hainbat bider epaitu eta aipatu den heteronormatibitatea beste modu batera aldarrikatzen du. Binarismoa hautsi, generoaren *continuum* bat proposatzeko,

eta, gainera, “heterosexuala naiz” esan. Heterosexuala izan nahi du errudun sentitu gabe. Eta ez da batere erraza, batez ere, feminismoak gogor salatu duelako heterosexismoa eta heteronormatibitatea. Subjektu protagonistak feminismoari eta bere sexukoei keinu bat egiten die: “Feminismoa aldarrikatu. Desioz begiratzen nauten gizonetzkoen albotik pasatu eta horrekin disfrutatu, nahi dudan bezala jantzi inauteriak ez direnean ere, ezpainetan muxua eman ez agurtu lagunak” (69. or.).

Genero nahasketa edo nahia honela azaltzen digu subjektuak: “Emozionalki, fisikoki, zakil-zikloki heterosexuala; arrazionalki, bisexuala; ideologikoki, gaya. Trans, intro, mega, homo, super, lesbo, *queer*... Funtsean, faxismoaren birziklapenaren kontra egiten duen zoriontasun mota guztien aldekoa naiz” (71. or.). Interesgarria da, halaber, matxismoa deseraitzeko, Guillanek hitz edo kontzeptu berriak sortzeko duen joera, denak ere matxismoa barregarri uzten dutenak eta denak ere oso bisualak. *Zakilzofrenia; zakil-zikloki heterosexuala; faxismoaren birziklapena; ideia zaharkituen depilazioa; aitatasuna titi depilatu bat*. Subjektua etenik gabe izan nahiko lukeenaz mintzo denean, emozioen zero politikaz dihardu (67. or.), eta gizonaren beldurrak aipatzen ditu, adjektibo oso zehatzen eta batere maskulinoak ez direnen bidez: *ahul, barregarri, galtzaile, barrutik biluzteko beldurra* (70. or.). Eta jarraitzen du bere burua deskribatzen: “itsusia, bufoia, poeta, aurrelari eskasa, defentsa okerra, atezain kaskarra, kakanarrua, iletsua, burusoila, etxetresna konpontzailerik traketsena” (75. or.).

Azkenik, esaten du aurrekoek erakutsi diotela gizonetzkoa izatea zer den; “nire aurreko gizonetzkoek eta batez

ere gizonezkoen rola defendatu duten nire aurreko emakumeek” (70-71. or.). Aitorpen publiko gehienak subjektuaren nahiak eta ezaugarriak zedarritze aldera eraikiak badaude ere, badira aitorpen batzuk genero indarkeriari eta bikote harremanei buruzkoak. Emakumeen kontrako bortxakeria izendatzeko, hainbat konparazio darabiltza: “guda totala, gatazka dosifikatua, isilpeko mundu-gerra”.

Hala, laugarren eta bosgarren aitorpenetan amak sufritzen dituen tratu txarrak salatzen ditu subjektu protagonistak, eta, horretarako, mapa sensorial ezin bortitzagoa egiten digu Guillanek. Haurtzaroaz hitz egiten digu; eskolatik bueltatu, etxean sartu, amaren negarra eta aurpegi ubeldua aipatzen dizkigu; azken hori genero indarkeriaren sinekdoke gisa. “Ez da erraza eskolatik bueltatu, eta telebistako pantailan ikustea, gorriz idatzita: *akabatuko zaitut*” (73. or.). Eta kolpatutako amen semeak nolakoak diren galdetzka ari da subjektua, nolako nobelak idazten dituzten eraildako amen semeek. Eta galdetzen du, halaber, ea inoiz pentsatu dugun zer izango den norbaiti lepoan labana sartzea “Nik bai. Ama defendatzeko. Baina ez dut egin, ez nuen nire aita akabatu, ez nuelako gizon hori izan nahi” (73. or.). Amatasunari gorazarre egiten dio subjektuak, eta esaten du berak ere aita izan nahi duela, gauzak beste modu batera egin daitezkeela frogatzeko, aitasuna titi depilatu bat dela frogatzeko.

“Bizi gaituen bizitza honetan” (75. or.) subjektu protagonistak esaten du “baztertuen familiakoa” dela, “emakumeen bortizkeria jasan duen gizonezkoa...” (75. or.).

## Agentzia

Esan bezala, mendeko protagonista batez baliatzen da idazlea maskulinitate hegemonikoak deseraikitzeke; sinonimia eta enumerazioa lagun. Esaten digu gizontasuna munduan egoteko modu bat dela. “Puzkerra. Korroka. Pixa egin edozein lekutan. Apurtu. Suntsitu. Tirokatu. Torturatu. Neskak barregarri utzi haien atentzioa bereganatzeko. Sexuari buruzko txisteak egin. Kanpaia jo eta besteei esan. Hau al da gizonezkook munduan egoteko dugun modua?” (80. eta 81. or.) Horri erantzuteke, biluztu egiten da subjektu protagonista, eta hauxe esaten digu: “Zarpaila eta sentsuala; beldurtia eta ausarta; ahula eta indartsua; traketsa eta abila; fina eta gustu txarrekoa; konprometitua eta ezjakina; Munduko itsusirik ederrena eta ederrik itsusiena” dela (84. or.). Jarraitzen du lotsaren lege idatzi gabeak zenbatzen: “Tabernetan dantzatu inor bultzatu gabe, neskekin hitz egin mozkorra egon gabe, publiko aurrean kantatu, kontzertuetan gorputz osoa astindu eta ez soilik burua, txuleta edo saiheitsak ez diren jakiak prestatzen jakin, arropa erosi aholkurik gabe, oinetako azkazalak moztu, familiako bazkalostean mahaia jaso beste gizonezko batzuen aurrean, ez umiliatu inor popularra izateko” (83. or.).

Subjektu protagonista, goragoko puntuan ikusi dugun bezala, genero indarkeriaren biktima bat da, baztertutako familia batean jaiotakoa, eta, patriarkatua zalantzan jarriz, maskulinitate berria aldarrikatzen duena. Dudarik gabe, agentzia lortze bidean jartzen du subjektu protagonistak. Amatasuna aldarrikatzen, aitatasun berriak aipatzen eta bikote harreman berriak iradokitzen dizkigu. “Ez genuen elkar erosi, ez elkar alokatu ere; okupatu bai, agian. Elka-

rren gogoak eta gorputzak okupatu genituen, batak besteari plazera emanaz, inorena ez den lurraldean” (82. or.).

## **Ondorioak**

Obran gizonetako subjektu protagonista maskulinoa deseraikitzen da, maskulinitate hegemonikoak zalantzan jarriz. Eta haratago ere badoa: maskulinitate disidenteekin bat egiten du. Antzerkia eta bakarriketa, gainera, oso aproposak dira horretarako; izan ere, gizonetakoaren gorputzari eta irudiari pentsamendu konstelazio bat jantzen zaiolako. Pentsamendu horiek subjektua azaleratuz doaz, eta horietan balantzan jartzen da gizonkeria. Antzerkia genero ezin aberatsagoa da kontraesana begi bistan jartzeko. Halaber, pentsamenduak lizentzia ematen dio subjektuari hitz berriak asmatzeko, hitzekin jolasteko, poesia erabiltzeko, eta horrekin mundu eta hitz berriak proposatzen dizkigu: *arra egon, zakilzofrenia, zakil-zikloki heterosexuala, faxismoaren birziklapena, ideia zaharkituen depilazioa, aitatasuna titi depilatu bat da*.

Literaturak berekin duen transgresiotik haratago doa Guillan, eta adjektibo eta kontzeptu oso plastikoak, oso ikusgarriak sortzen ditu, eta instantzia narratiboaren ahotan jartzen ditu. Iruditzen zait ideia zaharkituak depilatzearen irudia lan guztiaren erdi-erdian kokatzen dela eta mapa sensorial bat eraikitzen duela. Izan ere, oso bisualitatez gain, oso iraultzailea da esan nahi duena, eta hortik sortzen dira aitatasuna *titi depilatu bat* izatearen kontzeptua, ilearena... Denak ere feminitatea eta maskulinitatea nahasteko proposamen gisa... Batez ere, titia denean emakumeen ikono eta metonimia, ez bakarrik amatasuna

izendatzeko, baizik eta baita gorputzaren atal desiratue-  
netako bat izendatzeko ere. Dena den, lan honen ekarpe-  
nik handiena Guillanek, subjektu protagonistaz baliaturik,  
egiten duen maskulinitate hegemonikoaren salaketa da,  
eta, halaber, heterosexuala izanik eta errudun sentitu nahi  
gabe, maskulinitate disidenteei egiten dien keinua.

## **Ur Apalategi (Fikzioaren izterrak)**

*Sarrera*

Ur Apalategik narrazio bilduma honetan zazpi ipuin eskain-  
tzen dizkigu. Denek ere badute oso modu bateratuan edo  
berdinduan agertzeko *leitmotiv*-a: hala nola gaia; ironia eta  
garratzasuna; *trick ending* teknika, hau da, bukaera gehie-  
nak ezuste batekin korapilatzen dira; generoen hibridazioa  
testuaren barruan, hala nola gutuna, ipuina eta bloga eta,  
azkenik, patetismoz gorputzuriko pertsonaiak. Subjektu  
protagonista maskulinoa nagusitzen da lehenengo sei ipui-  
netan, eta azkenekoan, berriz, emakumezkoa da subjektu  
nagusia. Horrek ez du esan nahi maskulinitate hegemoni-  
koa goraipatzen denik; izan ere, patetismoa da pertsonaien  
ezaugarri nagusienetako bat. Eta, hori horrela, pertsonaia  
gehienak desioen eta ezintasunen arteko tentsioan erai-  
kiak dira (Rojo, 2010). Esan nahi da lan honetako perso-  
naia maskulinoak heroiak baino gehiago antiheroiak direla.  
Pertsonaiez haraindi, ordea, patetismoak literatura sariak,  
akademiak, kongresuak eta literatura idazkuntza eta iker-  
kuntza ziprizzintzen ditu. Patetismoa erretratatzeko aha-  
legin horretan, Apalategik euskal literaturaren miseriak,  
topikoak, ezinak azaltzen ditu, umore, ironia, sarkasmo  
eta autokritikaren bitartez. Gaiak euskal literatura –idaz-



tea eta publikatzea batik bat— eta maitasun —sexu— eta adiskidetasun harremanak dira. Bi gai nagusiak uztarturik, pertsonaia protagonistak beste pertsonaiekin lotzen dira narrazio gehienetan, eta sortzen diren egoerak oso interesgarriak dira maitasun erromantikoa<sup>2</sup> zalantzan jartzeko eta, aldi berean, bikote-harremanen interesak eta ahuleziak agerian jartzeko. Hala, bada, maskulinitate hegemonikoen nahiz heteronormatibitatearen inguruan gogoeta egiteko, oso narrazio aproposak ditugu Apalategik eskainitakoak.

### *Izenburua (Fikzioaren izterrak)*

Irudi poetiko batekin bildu ditu Apalategik zazpi ipuinak, eta, horretarako, *fikzio* hitza erabili du; izan ere, fikzioak oso hurbil utziko baitu errealitatea, eta batzuetan nahastu ere egiten dira. *Fikzio* hitza beste izen batekin elkartuta (*izter*), irudi ikusgarria sortu du, femeninoa, esan genezake. *Fikzioaren ezpainak, bularrak, ipurdiak, azala...* berdin izango litzateke, denek ere emakume baten gorputza irudikatuko bailukete: forma bat, estetika bat, metonimia bat, zati bat. Emakumearen gorputza modu zatikatuan erabili ohi baita (Wolf, 2001). Cristóbal Perak dio (2006) gorputza forma eta historia bat dela, eta gorputzaren forma beste gorputzen begirada eta eskuekin osatzen den geografia dela. Kasu honetan, izterrak dira fikzioarekin ezkontzen direnak, eta generoaz nahieran hitz egiteko geografia edo posizio bihurtzen direnak. Geografia horrek ematen duen lizentzian oinarrituta kontatu dira zazpi ipuinak.

---

2 Mari Luz Estebanek (2011) kontzeptu hau izugarri landu du *Crítica del pensamiento amoroso* liburuan (Bartzelona: Bellaterra) eta hitzaldietan.

## **Paradigma aktantzialak eta pertsonaien osaketa semantikoa**

Lehen eta azken ipuinak maskulinitateei begira posizio antzekoan agertzen direnez, eta, gaiari eta tentsio narratiiboari dagokienez, modu antzekoan garatzen direnez, hurrengo puntuan aztertuko ditugu. Hartara, bi ipuinetako maskulinitateak konparatu ahal izango ditugu.

Jarraian beste bost ipuinen paradigma aktantzialak aztertuko ditugu, eta pertsonaien hainbat ezaugarri semantiko erantsiko ditugu, pertsonaien kokapena aztertze aldera eta horien konstelazio eta konbergentzietan maskulinitateak nola eraikitzen diren ikuste aldera. Lehenik, *Epaimahaia* ipuina aztertuko dugu. Ipuin horretan pertsonaia kolektiboa edota korua azaltzen zaigu, izenburuak aurretatzen duen bezala. Epaimahai bat osatzen duten bost kide agertzen zaizkigu subjektu protagonista gisa: Kepa Jaurerri, Imanol Ansotegi, Borja Martinez, Irantzu Aranguren eta Karlos Iturriotz. Objektua: euskal literatura-sistemak eraginda, literatura saria ematea. Sarirako azken finalistak hiru dira: Joseba Sarragoiti, Markel Aoz eta Libe Aginaga, benetan lehia bi gizonen artean badago ere.

Zortzi pertsonaia azaltzen dira paradigma honetan, eta horietarik bi soilik dira emakumeak: bata, Libe, ekintzaren objektua, eta bestea, Irantzu, ekintzaren subjektua. Irantzu ez da “ez idazle, ez irakurle profesionala. Bizkaiko eskola batean diharduen irakasle xumea baizik. Baina epaimahai-ko lau gizonen bost axola zaie berak literaturaz asko edo gutxi jakitea, bera bezalako andereñoa izatekotan eskolara itzultzeko prest leudekeelako” (83. or.). Paradigma aktantzialak begi bistan jartzen du gizona kopuru aldetiko

nagusitasuna eta emakumezkoen bigarren mailako presentzia. Hala, euskal literaturan lehiaketei dagokien eremuan agertzen den maskulinitate tradizionalen hegemoniaren zertzelada bat ageri da ipuin honetan.

*Gutun bi posteritateari (Literatura eta Historia)*. Ipuin honetan subjektu protagonista Manu Eztandona da, Gasteizko funtzionario bat; emazteak abandonatu egin du, eta esan daiteke, jendarteak gizonari eskaintzen dionaren eta gertatzen zaionaren artean dagoen jauziarekin haserre bizi den gizaseme patetikoaren potreta argia dela. Manuk, kosta ahala kosta, idazlea izan nahi du. Baina idazleak irakurriak ez ziren garai haietan, idaztearen sinbolismoa gailentzen zenean ere jaso zituen kritika bakanek anakronikotzat jo zuten haren lehen lana” (67. or.). Bigarren porrota bigarren argitalpenarekin ikusi zuen. Eta orobateko porrota emazteak (Maitanek) utzi zuenetik dakusa. Halere, bere frustrazioa gainditze aldera, idazten segitzen du. Hor utziko dugu pertsonaia horren deskribapena eta funtzio aktantzialaren kokapena. Halere, esan behar da izenburuak iragarri egiten duela tupusteko bukaera. Horren harira esan behar da subjektu protagonistak duen nor izateko nahia eta anbigutasuna ez dela soilik idazle izan nahi horretan geratzen, haren izate politikoa ere modu analogikoan garatzen baita ipuinean zehar. Hortik datoz tituluaren bi aldeak: *Literatura eta Historia*. Hortik dator pertsonaiaren gainbeheraren patologia literarioa eta politikoa, zeinek maskulinitate hegemoniko degradatu bat irudikatzen duten pertsonaia maskulinoari eta haren inguruko pertsonaiei esker. Eztandona, pertsonaiaren izenak berak iragartzen du narrazioan zehar pertsonaiak hartutako erabaki traketsen, nahi eta

ezinen metaketa. Eta, azkenean lehegailu bat dela medio, eztanda egingo dute. Eta sarkasmoa: izan ere, semantika horri jarraikiz, ezinezkoa da eztanda onik gertatzea inondik.

*Ergatibu* ipuina lehen pertsonan idatzia dago, eta pertsonaia subjektua 40 bat urteko gizasemea da, Euskal Filologia euskaltzaletasunagatik ikasia. Berak esaten duen bezala, benetako misoginoa dirudi (93. or.). Eta halaxe da, kasu honetan, haren helbura da, gauza guztien gaintetik eta modu obsesionatuan, euskaraz mintzatzea emaztearekin eta senideekin. Euskararekin obsesionatuta dago, eta, hori dela eta, bikote harremana okertu, eta gero hautsi egingo da. Protagonistak, banandu eta handik hiru urtera, bere bakar-dade maskulinoaren berri emango digu. Bitxia da ipuin honetan protagonista militantzia linguistikoaz baliatzea bere nagusitasuna nabarmentzeko. Baina maskulinitate hori heziz doa ezagutzen dituen beste neska-lagunekin; izan ere, haiekin dituen harremanek begi bistan jartzen dute maskulinitatea botere harreman gisa (Gramsciren terminoa gogoan). Honatx haren pentsamenduak: *Ez da inoiz azpibaloratu behar emakume baten ametsen mediokritatea* (92. or.). *Lucia ez zen bigarren mailako neska gajo bat, "standing" eskasa jarrera sexual eskuzabalaz konpentsatzeko prest dauden horietakoa* (93. or.).

Azkenik, *Beste bizitza* eta *Urrezko vespa* ipuinak maskulinitate aldizkakoan paradigma ditugu, bi modu oso diferentetan adierazita azaltzen badira ere. Lehena aipatuko dugu, asko ez luzatzearren. *Beste bizitza* ipuinean, paraleloki garatzen diren bi ipuinen teknika oso aipagarria gertatzen da: bata, irakurle errealak irakurtzen du, denbora errealean,

eta beste kontakizuna, berriz, testuko irakurleez baliatuz leitzen den kontakizuna da. Ipuinaren *leitmotiv*-a etenik gabe errepikatzen da, paragrafo baten irakurketaren interpretazio ezberdinen aitzakiaz. Ipuin nagusiko subjektu protagonista bikote harremanaz mintzo da, eta dio bikote harremana elkarrizketa errepikakor eta amaigabe bat dela (III. or.). Eta hori da, hain zuzen ere, eskaintzen digun barne ipuina. Subjektu protagonista, idazlea, metafora horretaz baliatzen da emaztearen samina ipuin osoan behin eta berriro errepikatzeko. Emaztea haurdun dago, eta minbizia du. Hori dela eta, galdera bat ageri da konstante moduan, Jaione emazteak egiten duena: “Zergatik gertatu behar zait niri hau?”. Eta subjektuaren erantzuna behin eta berriro lantu bera izango da: “Ez zaizu zuri gertatzen ari. Guri gertatzen ari zaigu”. Subjektuaren testu hori zenbait irakurlek irakurtzen dute ipuinean zehar. Testua irakurketa horiek guztiek osatzen dute (tren geltokian, zinema aretoan, neska baten gelan), eta idatzia behin eta berriro errepikatuko da hamalau urtez, harik eta Ane alabak irakurtzen duen arte; izan ere, haurdunaldia ez etetea eta aurrera egitea erabaki zuten. Hil behar zuen amaren bizitza, Jaioneren bizitza, alabak ezagutzea da idazlearen eginkizuna. Subjektua idazketaz baliatzen da, eta, esan dugun moduan, bikote-harremanaren eta jaiotzera doan haurraren nondik norakoa kontatzea da haren eginkizuna. (Berriro ere jolasa izenarekin: *Jaione*, hiltzera zihoan ama haurdunaren izena).

Ipuin honetan, berdintasunean oinarritutako bikote harreman bat irakurriko dugu, elkar elikatuz aberastua. Hartutako erabaki partekatuak eta konpartituak. Nahi zuten haurraren etorrera zailaren ostean bizi izandakoak eta su-

fritutakoak; bi urtez saiatzen aritu ostean, adopzioa edota *in vitro* egitea pentsatzen arituak, eta, halako batez, haurra heldu da. “Etxe osoa sinfonia, sonatina eta divertimentoz betetzen nuen (...) Nirea ere haurdunaldia zen, dudarik gabe” (125. or.). Titi depilatuaren ideia agertzen zaigu.

Interesgarria da, halaber, protagonistek ohiko rolak hautsita, gizonetako letren mundutik bizi izatea eta emakumezko zientzialaria izatea eta, gainera, aipatzen da gizona, ikasketak bukatu arte, hiru urtez neska-lagunaren kontura bizi izan zela.

### **Gizon trataeraren kategoria**

Lehen ipuina, *Azken fandangoa Buenos Airesen*, eta azkena, *Bernardo et Ramon* alderatuko ditugu hemen; izan ere, egitura paraleloa dute gaiari dagokionez. Ipuin bakoitzarekin hasi baino lehen, beste kontakizun bat ere aipatu behar dugu, bi ipuin horien lokarri ere bada eta. Hirugarren ipuin hori lehen ipuinaren barruan kokatzen da, protagonista nagusiak idazten du eta liburuko azken ipuinean luze eta zabal garatzen da. Metaliteratura egiteaz gain, *Azken fandangoa Buenos Airesen* lehen ipuinean kontaktzen den barne ipuina haren eta *Bernardo et Ramon* ipuinaren arteko *re-make* gisa aurkezten da. Hiru ipuinetan, beraz, gain behera datorren subjektu batek, baina euskal literaturan kontsokratua denak, gazte bat desiratzen du, eta desira betetzeko ekintzetan oinarritzen dira instantzia narratiboak. Eta ekintza horiek denak ere erdeinuzkoak eta ironikoak dira.

Lehen ipuinari helduz, Ander Galtzada idazle ezaguna eta kontsokratua da subjektu protagonista, 50 urte ingurukoa. “Eleberrigile sendoenetakoa, irakurria, itzulia, saritua”. Pa-

re-parean, objektua: Katxalyn idazle gaztea, ederra, modan dagoena. “Neska ikasia baina ez pedantea, arina baina ez hutsa, sentsuala baina ez eskainia, euskal politikari zego-kionean agnostikoa...” Anderren eta Katxalynen arteko dialektikan garatuko da ipuinaren nondik norako guztia. *Bernardo et Ramon* ipuinean, berriz, Gisélè da subjektu protagonista, Parisko Ecole des Hautes Etudes en Sciences Sociales-eko irakasle katedraduna, ikerlaria eta Gallimard argitaletxeko batzordeko kidea; 43 urte ditu. Antso da ipuin honetako objektua, Gisélèren unibertsitatean antolatu duten kongresura doan bilbotar gazte bat, beltzara eta erakargarria. Gisélèren seme zaharrenak baino bost bat urte gutxiago ditu. Aurkeztuko duen ponentzian, Michel Houellebecqen eleberrigintza eta Bernardo Atxagarena ditu “aztergai nahiz erkagai” (162. or.).

Bi ipuinetan, bi subjektu protagonistek nitasunetik idazten dute, bigarren mailan geratzen dira objektu desiratuak: Katxalyn lehen ipuinean eta Antso bigarreanean. Beraz, bi ipuinetan, subjektu jakintsu eta kontsokratuek bi gazte, osatzeko bidean direnak estatusari dagokionez, desiratzten dituzte, eta, desira betetzeko, hainbat gauza egingo dituzte. Honatx Gisélèren pentsamenduak: “( ) zera esan nahi zuela, Antsok beste belaunaldi batekotzat nindukala, *merkatutik kanpo* ikusten ninduela” (165. or.). “Nola senti zezakeen nire ospeko ikerleak, nire eskarmentuko emakumeak, nerabezaroa utzi berria zuen gizon gazte batekiko halako sasi bihozkaririk?” (167. or.). Hona hemen, berriz, Anderrek Katxalyni eskainitako ipuinaren zatia, goian aipaturiko hirugarren ipuinaren zatia: “Viagraren laguntzarik

gabe hanpatu zitzaion zakila. Irmo zeukan aginte makila, aterik pisutsuenak kolpeka botatzeko prest” (49. or.).

Baina lehen paradigma aktantziala horrela eraiki badugu ere, hau da, ekintzaren subjektu-objektuak –Ander-Katxalyn eta Gisélè-Antso–, narrazio horiek badute beste ekintza narratiborik, beste irakurketarik. Ekintzaren subjektu-objektuak alda daitezke, eta beste irakurketa bat proposatu: horretan, subjektuak Katxalyn eta Antso bihurtuko lirateke, eta objektuak, Ander eta Gisélè. Hartara, Katxalyn lehen ipuineko subjektua izango litzateke, eta objektua litzateke idazle berri gisa leku bat lortzea literatur munduan, eta hortik letorke idazle zaharra hiltzea, hari erasotzea edota aita hiltzearen perifrasi. Bigarren ipuinean, Antsok Saizarbitoriaren *Rossettiren obsesioa* Gallimard argitaletxeak argitaratzea nahiko luke, eta helburu horrekin hurbiltzen da Gisélèrengana. Beraz, bi paradigma aktantzialak ontzat hartuko genituzke.

Lehen ipuinean, urteak dira Ander Galtzadak idazten ez duela eta, halako batean, Googlen bere buruaz informazio bila ari dela, Katxalynen bloga topatuko du, eta hor, bere obrari buruzko hainbat kritika. “Galtzada jaunaren bular oparoekiko obsesioa” (7. or.); “falokrata titimaniakoa” (8. or.). Hori gutxi balitz bezala, Katxalynekin sei hilabetez egunkari batean zutabe bat konpartitzen hasten da, eta haren eraso jasanezina egiten zaio. “Idazle kontsakratua nintzen, idazle hasi berriak tokia egiteko hil behar duen aita” (15. or.). Eta Katxalynekiko borrokaren gailurra Argentinako bira literarioan gertatzen da. Han ere Katxalynek bere ekitaldietan emozio fisikoa eragiten segitzen du, Galtzada jomuga duela. Halako batean, Katxalynek ez du



ez literalki, ez alegorikoki egurtzen, eta “gutxietsia” eta “inoratua” sentitzen da Ander (46. or.). Hortik abiatuta, idazteko modu berri bat esperimentatzen hasten da Galtzada; estilo ezberdin bati hasiera ematen dio; bere burua berrasmutzen hasten da. Ez du, hala ere, Katxalyn bereganatuko; izan ere, Katxalyni zaharrak ez zaizkio gustatzen. Argentinatik bueltan, emazteak utzi egingo du, eta konturatu da horrek ere ez diola saminik eragiten. Salmentak igo, ospea indartu, eta astinaldi bat ematen dio bere bizitza pertsonal eta literarioari, Katxalyni esker. Eta hori dena bere blogean kontatzen digu; izan ere, dibortziatu ostean blog bat idazten hasten da samina arintzeko.

Bigarren ipuinean, Gisélèk eta Antsok Parisko Ecole des Hautes Etudes en Sciences Sociales-en antolatu den kongresuan ezagutzen dute elkar. Kongresuaren antolatzailetako bat da Gisélè. Antso kongresura doa, txosten batekin. Antsok, kongresu ostean, Gisélèri deitzen dio, Paris elkarrekin ezagutzeko, eta, azkenean, bere hotelera eramango du, eta han *Rossetiren obsesioa* narrazio guztia irakurrarazten dio; bitartean, Antso lo geratzen da. Liburua bukatu, eta martxa egiten du Gisélèk, gaztea lotan utzita. Ez dago sexurik, ez da zorrik kitatzen, ez dago publikaziorik. Esan bezala, ipuin hau iragarria zegoen *Azken fandangoa Buenos Airesen* kontakizunean azaltzen den barne ipuinean.

## **Ondorioak**

Beraz, azken ipuin horietako lehen paradigma aktantzialeko subjektuen artean badago diferentziarik, nahiz eta biak formakuntza handiko pertsonak izan. Esaten da Gisélè gainbehera datorrela 43 urterekin, eta Ander, berriz, 50

urterekin. Eta biek gazteak dituzte desiratzen. Ander auzartzen da sedukzio jokoa aurrera eramaten; Gisélèk, aldiz, erreparo eta lotsa handia izan du jendaurrean Antsoren-ganako desira azaltzeko, bere estatuseko emakume batek ezin dituelako gazteagoak desira, ez dagoelako ondo ikusia.

Objektuen artean ere diferentziak nabarmenak dira, Katxalynek etenik gabe lana egin behar du Anderren jarrera eta arreta bereganatzeko. Sexurik ez dago; izan ere, Katxalynek zaharrak ez ditu gustuko. Katxalynek lortzen du idazkuntzaren estilo edota mundu berrira hurbiltzea Ander Galtzada. Berea da borroka, berea da maskulinitate femeninoak modu eraginkorrean eta inteligentean aktibatzea, baina lan handia egiten du maskulinitate hegemonikoak barrengarri uzteko. Aldiz, Antsok ez du horren erdia ere egiten bere helburua lortzeko, sedukzioan geratzen da egiten duena, eta ez du ezer lortzen. Ez dago publikaziorik, Gisélèrengan ez du ezer mugitu.

Beraz, bietan ere maskulinitate hegemonikoak bistan dira, baina emakumeen prestakuntza eta parekotasuna agerian geratzen da. Hau da, begi bistan jartzen da maskulinitate hegemoniko horiek urratze aldera emakumeek egiten duten lana. Eta ñabardurarik interesgarriena Gisélèren eta Katxalynen arteko diferentzian dago, biak ala biak emakume prestatuak, ikasiak, estatus bat dutenak, baina bata adindua eta bestea gaztea. Bien arteko koska bataren eta bestearen aktibismoan igartzen da. Adinduak oraindik ez du sexua modu askean kudeatzeko aukerarik; aldiz, Katxalynek bere pubiseko ile moztuak bidaltzen dizkio Anderri ohar batekin, esanez pena dela berari zaharrak ez gustatzea. Esan behar da zentzu askotan maskulinitate

tradizionalen aurrean bagaude ere, horien gainbehera eta emakumeen posizio berria dela medio, oso nabarmentzekoak direla bi narrazio hauetan, eta bietan kuestionatzen dela gizonezkoen hegemonia.

Ondorio orokor gisa esan daiteke Apalategik modu sistematikoan kuestionatzen dituela maskulinitate hegemonikoak. Batzuetan, nabarmen jarriz euskal literatura sisteman kudeaketa arloan oraindik gizonezkoak direla nagusi, eta, bestetan, pertsonaia maskulinoak hegemoniatik oso urrun kokatuz. Figura patetikoak dira kasu gehienetan, nahiaren eta ezinaren artean borrokan dabiltzanak, ondoan emazte atxiki bat dutenak, baina, konturatu orduko, ahaztu egiten dituztenak. Pertsonaia maskulino degradatu horien sorkuntza gertatzen da zazpi ipuinetan.

Badago, halere, aldizkako maskulinitateetara egindako hurbiltze bat, pertsonaia femenino interesgarrien eta maskulino batzuen sorkuntzaren bidez harreman parekideak iradokiz eta maskulino-femenino binomioaren ezaugarriak irauliz edo nahastuz. Azkenik, maskulinitate disidenteetara hurbiltzeko nahia ere azaltzen da Ander Galtzadaren kasuan: zutabe bat homosexualen inguruan idazten du. Katxalynek, baina, barregarri uzten du: homosexualen aldarria egiten duten “*cultural studies* edota *queer theory* di-relakoen autore eta erreferentzietan bermatuz, errepaso bat ematen zidan” (14. or.).

## **Edu Zelaieta (Aldaira urdinak)**

*Sarrera eta izenburua*

Izenburuak irudi poetiko ezin bisualagoaz ohartarazten digu ondoren irakurriko dugunaz. Ez genekien mudantzek kolo-

rerik zutenik, baina instantzia poetikoak urdinak ikusi ditu aldairak. Eta ez alferrik, ez horixe! Ez dira hitz kontzeptuak, hitz sentsazioak baizik. Esparru teorikoan, arrosaz eta urdinaz mintzatzen bagara; hemen esan behar dugu poetak kolore urdina aldairan, mugimenduan jartzen duela; beraz, binarismoa hausteko lehen gonbita izenburutik datorkigu. Bada kolore gehiagorik. “Eder ziren arbolak, puri-purian lo-reak, beren titi xuri eta xakiltto arrosekin” (38. or.).

Poetak emozioak sortu behar ditu sentsazioen bidez. Horaziok zioen “*ut pictura poesis*”; ondorioz, irudien eta musikaren xedea irakurleengan gogo aldarte bat sortzea da, eta halaxe jo du Zelaietak 97 orrialdeetan barrena, sentitzeko ikusi egin behar delako. Zelaietak sarreran irakurleoi honela aitortzen digu: “Dagoeneko ez naiz toki berean bizi” (7. or.). Liburua aldairan egina da. Gerundioan. Mugimenduan. Irudiak mugimenduan jartzen dituzten aditzen geografian, aditz plastikoz eta adjektibo plastikoz lagundurik, aldairan mapa sentsoriala eskainiz irakurleari. Etxez aldatu da egilea, baina ez da hori aitortzen digun mudantza bakarra: “Ari naiz gaztarotik gauzarik behinenak biltzen; iragana geroarekin uztartzen; beldurrak esperantzarekin nahasten. Izan ere, inork ez ditu soka guztien muturrak; ezta boteretsuenek ere. Eta horrek, gustatu ala ez, interegarri egiten du mundu zalantzati hau” (7. or.). Irakurleoi galdetzen digu ea guk ere mudantzaren bat bizi dugun. Eta aldaira horietan kokatu behar da hortik aurrera subjektu poetikoak kontatuko diguna. Guk, azterketa lan honetarako, hainbat poema aukeratu ditugu, batez ere gaiari atxiki zaizkionak. Batetik, maskulinitate hegemonikoen mundu zalantzatia hartu dugu gaitzat, eta, bestetik, amatasun nahiz

aitatasun berriei poetak egiten dien lekua. Horiek kontuan hartuta, poema hauek aukeratu ditugu: *Alegiazko enpatia*, *Neure balentriez ez bezala*, *Memoria historikoa II*, *Blues arina*, *Ene bezero fidelak*, *Lau ardo kopa*, *Munduan ez zaudela*, *Be-launaldi berriko aitok*, *Bizitzaren neurria*, *Gasteizko Andre Mari Zuriaren plaza berritzeaz arduratu diren politikoei, arkitektoei eta (gainerako) adituei gutun irekia eta Intuizioa*.

Egileak argitaratze bidean duen *Zu, hura eta ni (Ispilu biluziak)* liburutik, aita hilari eta berriro aitatasunari dedikaturiko poema hauek aukeratu ditugu: *Ziztuan*, *Bizar makina*, *Heriotza erakutsi*, *Ondareaz galdetu zigun abokatuak*.

*Irakurleari: Lau ardo kopa*

Poema hau esan ohi da hitzekin pintatzen diren horietakoa dela; ez da poeta erretorika faltsuetan ibili. Hirugarren pertsona kudeatzen duen instantzia poetikoaren alde egin du irakurlearen irudimenari hitz egiteko, eta, horretarako, halaber, ekintza batzuen hautua egin du. Ekintza guztiek aditz ikusgarriak dituzte: *joan*, *erosi*, *harraskan utzi*, *irakurri*... Naturaltasunez, enfasirik gabe, modu jarraitu batean hainbat gertaera kontatzen ditu, irakurlearen begietan eszeptizismoa, tristura sortzeko. Eta, azkenik, subjektu poetikoaz baliatuko da bukaeran kolpea emateko. Esan behar da Zelaietak asko erabiltzen duen teknika dela. Hau da, egoera bat, emozio bat sortuz doa poeman, eta bukaeran, ustekabea dator. Poema honetan, subjektu poetikoak eszenan neska edo mutil bat (gure esku dago aukeratzea) jartzten digu, txinatar bazar batera doana, kristalezko lau kopa erostera (kristalezkoak irudikatu ditu irakurle honek). Poema maitasun opari batez mintzo da, baina lau ardo

kopa dira. Poemaren indargunea edota xehetasun poetikorik adierazgarriena kopak biltzeko erabilitako egunkari paperean dago. Egunkari paper hori txineraz dago, baina argazkiak ikusten ditu instantzia poetikoak, argazkiak bereganatzen ditu irakurleak. Eta poetari kristalezko kopak, maitasun opariak “lau ardo kopa metalezko harraska hoztean” geratzen zaizkio.

Poema hau oso prosaikoa da, balirudike poesiatik gutxi duela, baina esan behar da, Horazioren hitzak gure eginez, koadro bat dela; subjektu poetikoaren eginkizunak, ikusten diren objektuak, denak oso modu ikusgarrian aukeratuak dira, apur daitezkeenak eta halaxe gertatzen da bukaeran kopak metalezkoak bihurtzen direnean harraska hoztean. Irudi poetiko horrek iradokitzen digun hoztasunak hankaz gora jartzen du bizitzaren maitasun eta lasaitasun egoera, eta lur azpian gorderik bezala zegoen emozio triste bat, zalantzi bat ateratzen zaio barru-barrutik subjektu poetikoari.

Hori guztia esanda, eta poetak erabili duen koherentzia bisuala azpimarratuz, esan behar da Zelaietak bere poema askotan erabili ohi duela teknika hori, eta ez gara, beraz, horrekin luzatuko. Baina poema hau aukeratu dugu, batez ere, subjektu poetikoak irakurle implizituari, testualari, nahi denari hitz egiten diolako, eta, halaber, keinu hori liburu osoan agertzen den beste konstante bat delako. Baina kasu honetan oso lotua dago gure gaiarekin; izan ere, irakurleari aukeran uzten zaio subjektu poetikoaren bikotekideari sexua jartzea, “Bere maiteñoari –neska ala mutila, zeuk aukeratu–” (59. or.). Horrekin poetak esaten digu generoa nahiz maskulinitatea edota feminitatea kons-

truktoak direla, eta gure esku uzten du aukeraketa, edota hain artifiziala den eraikuntzaren ariketa hori.

*Maskulinitate hegemonikoei: Gasteizko Andre Mari Zuriaren plaza berritzeaz arduratu diren politikoei, arkitektoei eta (gainerako) adituei gutun irekia eta Memoria historikoa II*

Subjektu poetikoa maskulinitate hegemonikoei galdezka abiatzen da, nola litekeen XXI. mende honetan gerra bati eskainitako garaikurra berritzea (...) odolari eta heriotzari monumentuak altxatzea (76. or.) eta subjektu poetikoak agintariei esaten die, filosofoaren hitzez baliatuz, herri bat benetan ezagutzeko arakatzeko haren kantuetan, kantuak direlako esku-eskura ditugun monumenturik onenak (76. or.). Berriz ere poeta metaforez eta sinonimiaz baliatzen da –*gerra, arroka hila, estatuak*– maskulinitate tradizionalaren sinboloekin lotzeko, eta hura desagiteko, hitza, musika, kantua proposatzen ditu, *gerraren* eta *harri hilaren* antagoniatik. Finean, historia modu batera edo bestera konta daitekeelako.

Baina badu beste poema bat, *Memoria historikoa II* izeneko, aditza aginteran erabiliz eta bi paragrafo hasieretan paralelismoak lagun eginez eraikia dagoena. “Altxa diezaiegun, Eman diezaiegun” (24. or.). Bost bider eta jarraian errepikatzen den izenari eskainia: “amei amen amei amen amen abar osoari” (24. or.). Eta eskatzen du subjektu poetikoak herri-hiri orotako plaza nagusian ahanztura historiko horri harri landuaren forma ematea. Berriz ere instantzia poetikoak beste proposamen bat egiten digu, oso bisuala: amatasuna du aldarri, eta harantzago doa: ahanztura historikoari harri landuaren forma emateko eskatzen baitu. Antigona bizirik

lurpera zezaten eta, hala, betiko isilduko zela agindu zen bezala, emakumeak betiko isiltasunera kondenatu izan dituzte. Poeman, instantzia poetikoak ahanztura horri, isiltasun horri eraikin bat altxatzeko erregutzen du. Kantua eta ahanztura formarik gabeko harriak dira, irudiak, baina instantzia poetikoak bi poema hauetan loratzen ditu, forma ematen die, emozioak sorraraziz. Aginteratik eta ukaziotik (hegemoniatik) eraikiak diren monumentuak botatzeko eskatzen du, eta beste batzuk begi bistan jartzeko: kantua, ahanztura..., zeinak emakumearen metaforak diren.

Bi poemak badituzte antzekotasunak; izan ere, monumentuen gainean eraikiak daude, sinbolo horiek diskurtso diferentek eraikitzeke pentsatuak direlarik; finean, ideologiak sustatzeko sortuak, eta horri kritika egiten dio subjektu poetikoak. Bi poemetan adierazgarritasunaren bidez egiten da aldarria: poema, artifizioz erantzi eta erritmoz eta hitz aukeratuz osaturik, behar duen abiaduran jarritz; batzuetan, elipsietara joz abiadura lortzeko; bestetan, errepikatuz, batez ere errepikatu nahi diren instantziak *leitmotiv* bihurtuz.

*Aldizkako maskulinitateei: Alegiazko enpatia, Ene bezero fidelak, Promesak, Neure balentriez ez bezala, Blues arina, Salburuako etxe berrira ailegatu –galdu ez– diren kutxa batzuk*

Poema hauetan aldizkako maskulinitateak ageri dira. Instantzia poetikoak muzin egiten dio maskulinitate tradizionalari eta, halaber, emakumeekiko enpatia erakusten du, generoaren ardura eta irakurketa makulu dituela. Hala, *Alegiazko enpatia* eta *Ene bezero fidelak* poemetako gai nagusiak genero asimetria eta prostituzioa dira. *Promesak*,



maitasun erromantikoaren inguruko gogoeta bezala irakur daiteke, eta, azkenik, azken hiru poemak berriro ere maskulinitate nagusien deseraikitze modura leitu ditugu. *Blues arina* eta *Neure balentriez ez bezala* poemetan *Arra*. *Arraro*-an ikusi dugun ariketa berbera dakusagu: subjektu poetikoa biluzten ari da. Arranguraka ageri da, jendarteak gizaseme edo pertsona gisa zer egin behar duen esaten diolako, eta bere izatea eta sentitzeko modua aldarrikatzen ditu. “Harro nago neure miseriez neure balentriez ez bezala” (22. or.). Eta banan-banan aipatzen hasten da: “lau gezur txiki, noizbait koldar jokatu izan” (23. or.). Ildo horretan, *Blus arina* poeman etenik gabe errepikatzen duen bertsoa “hanka sartuko dut” da. Eta, ondoren, zerrendatu egiten ditu: “bide okerrak aukeratu, erabaki ahuletan galdu...”. Zerrendatze horiek bi poemetan abiadura, naturaltasuna eta aparteko indarra ematen diote esan nahi denari. Eta esan nahi den hori errepikatu egiten da. Eta maskulinitate hegemonikoak saihesten ditu, nahiago baitu “zaturik bizi, betiereko itolarrian baino”; “nahiago baitut hatsa hartu zama bota ondotik, ezen ez hatsanka bizi lasterrari eman gabe” (28. or.). Beraz, subjektu poetikoak hitzak eta egitura sintaktikoak errepikatzen ditu deseraiki nahi duena azpimarratzeko eta, ondoren, justu esan nahi duen horren adarrak zabaltzen ditu, eta zenbatzeari ekiten dio. Esaldiak osatzeko bi teknika horien bidez, instantzia poetikoak egin nahi duena errepikatzen eta esplikatzen du nahi adina, garbi gera dakion irakurleari zertaz mintzo den maskulinitatez ari denean.

Azkenik, liburuko azken poema aukeratu dugu: *Salburuako etxe berrira ailegatu –galdu ez– diren kutxa batzuk*.

Hor, subjektu poetikoak gogoeta bat egiten du erosketa zerrendaren teknika erabilia, zeina idazle emakumezkoek oso ohiko duten eta, rolei dagokienez, emakumeen zeregina bihurtu den. Zerrenda bat eskaintzen digu, etxe aldaketa-aren ondoren egin beharko lukeenaz, galdu nahi ez lukeenaz eta izan nahi lukeenaz. Zerrendatze luze bat da, berriro ere subjektu poetikoaren biluzte bat, non gizaseme berri bat topatzen den, aipaturiko hegemoniaren kontzeptuarekin talka egiten duena.

*Aitatasun berriei: Munduan ez zaudela, Belaunaldi berriko aitok, Bizitzaren neurria eta Intuizioa*

*Munduan ez zaudela* poema, sinonimiaz eta hitz nahiz adierazpen jarraituz baliatuta, subjektu poetikoak jaiotzera doan haurrari idatzia da. Minez eta jelsiaz beteriko bertsoak idazten dizkio. Hala, egoerak eta objektu berriak deskribatzen ditu, bizitza oso bat laburtzen duten esaldietan babestuz. Subjektu poetikoak jaioko denari hitz egiten dio, maitearen barrenak odolez urratuko dituenari, bera ikusteagatik ilarak egingo dizkietenari, opari ederrak jasoko dituenari, maitearen maitasuna ebatsiko dionari. Poema honetan bizitza oso bat deskribatzen da: amaren gorputza urratu –jaino–; maitasuna lapurtu, maitatzeko gaitasunarekin batera –harremanak beste modu batera kudeatzen ikasi–; eta berehala ttipi-ttapa, lau hankatan lehenik, eta gero bertikaltasunaren jabe eginez lasterka eta jauzika hasi –oinez ikasi–. Bukatzeko, eta hura maitatzen ikasi orduko, arrotz bat agertuko dela dio subjektu poetikoak, “eta betiko eramanen zaitu” (65. or.). Subjektu poetikoak bigarren pertsonan idazten dio jaiotzear dagoen umeari, eta,

modu zintzoan, galduko duen horretaz mintzo zaio, galtzeko duen beldurraz, jakitun hirugarren batek mugimendua, mudantza dakarrela bikote harremanera. Eta, ondoren, amari idazten dio subjektu poetikoak *Belaunaldi berriko aitok* poeman. Bigarren pertsona erabiliz, eta “sabel handituak bizitzari bizitza deklaratu baino lehen” (67. or.), berak dituen beldurrez eta ezjakintasunez beteriko gerra poema idazten dio. “Guraso hippyak izan baditugu ere, ez baitakigu oraindik begiekin negar egiten”, aitortzen dio. Amatasunaren semantikari, horrela, belaunaldi berriko aitatasun prestatu gabeen neurria kontrajartzen dio, eta modu zintzoan hitz egiten dio ama izango denari ere. *Bizitzaren neurria* poeman, subjektu poetikoak, amatasunaren metonimiaz baliatuz, amatasunaren aldarrria egiten du, bizitzaren neurria oparitu dion lagunari eskerrak eman, eta gorazarre egiten dio. Berriz ere bigarren pertsona darabil, baina oraingoan erditu den amari hitz egiten dio, 51 zentimetro luze eta 3.620 gramo bihotz oparitu dion bikotekideari omenaldia egiten dio, eta lehenagoko usteak aizkatzen ditu eta bere hutsaren larriaz desenkusutzen da: “Argi dakusat orain ene hutsaren larria ene zekenaren galanta, bizitzaren neurria oparitu didazunean” (69. or.). Bukatzeko, *Intuizioa* poeman, jaiotako semearen eta egin berri duen mudantzaren artean analogia bat egiten du, eta subjektu poetikoak zalantzak azaltzen ditu datorrenaren inguruan. Azkenik, intuizioaren alde egiten du, bi lekuen, bi belaunaldien artean dagoen aldeaz hausnartuz: “Bai, badut intuizio mehe eta fin bat, Amets: Gasteizko porlanean hazitako bi gizon hauek diferente begiratuko diotela lurrari, diferente elkarren maiteari, diferente diferentziari” (83. or.).

*Aita hilari: Ziztuan, Bizar makina, Heriotza erakutsi,  
Ondareaz galdetu zigun abokatuak*

Azken liburuan, berriro ere aitatasunaz mintzo da instantzia poetikoa, maite diren pertsonen uzten dituzten zuloez, usainez, erantzunik gabeko galderez. Aita axaleko berniza, ama brotxa lodia. Eta bizitza osoan ezer gutxi irakatsi eta eman zizula uste duzunean, poetak dio heriotza erakutsi ziola aitak. “Zure besoetan eman ditu hondar hats handituak ospitaleko ohatzean. Aitago egin zaitu aitaren heriotzak ezustean, bortz urteko semearen galderen aitzinean”<sup>3</sup>. Eta subjektuak dio irakaspen hori aitak nonbait bukaerarako gorde zuela: “nonbait, zuretzako lezio nagusia. Aitatik aitara”, poetak akaberarako utzi duen bezala, bizitzaren joanean apenas ezer zena heriotzan maisu izan duen aitaren irudia. Eta aitak utzitakoaz galdetzen jarraitzen du poetak *Ondareaz galdetu zigun abokatuak* poeman. Eta poetak egokiera aprobeztatzen du aitaren ondasun hutsez, Kutxako sosez kezkatzen den gizartearen eta bere sentimenduen arteko talkaz ironizatzeke eta bere hase-rra azaltzeko. “Egiazko herentziaz ari ginelakoan nengoela ni. Aitak niri larru azpian utzitakoez, nik hari nahita eta nahi gabe ikasitakoez, Zertarako, bertzenaz, notario baten fede ordaindua?” Subjektu poetikoaren azken zartakoa. Eta bukatzeko, *Ziztuan* poema, herioak ziztuan eramandako aitari. Modu bizkor batean, bost estrofatan, eta denak ere *Haizeak eraman du aita*. *Ziztuan* paralelismoaz baliaturik kontatzen digu subjektu poetikoak ezustea. Azken hatsa.

---

3 Ez dugu orrialderik zehazten; izan ere, poema hauek argitaratze bidean dira, arestian esan bezala.

Ura. Heriotzak, lehortera daroan bizitzak, berekin duen azken tanta eta samina irudikatzen dizkigu subjektu poetikoak. “Ura eskatu zidan, ahots hari mehe baina artean ulergarri batekin. Gasa zipatu batez ureztatu nion hiru letrako ozeano xukatu hura, ttanttaz ttantta. Idortzen zait zintzurra oraindik ere tarteka, begiak bustitzen zaizkidalarik”.

Heriotzaren metaforatzat hartzen du haizea, maite den pertsona azkarregi, ziztuan eramaten diona. Haize-hegoa azkartxo zebilen urriko, izoztua azaro bukaerako. Eta bizitzaren arrasto gisa, ura, aitik azken hatsaz eskatzen diona eta subjektu poetikoarentzat uzta bilakatuko dena, aitatasun berrietzako elikagai eta hausnarrerako *tempus*-a eta *humus*-a. “Azaro bukaerarako izoztu ditu Otazu inguruko erremolatxa soroak, patata landa ustiatuak. Aitaren zaporea izanen du uzta berriak”. Honatx subjektu poetikoak itsasoa den heriotzatik, aitaren heriotzatik, ur tanta batekin iradoki duen heriotzatik, aitatasunen inguruan hausnartutakoa, aitatik aitara. Uzta berria ekarriko duena, hausnarketarena, elkarrizketarena, maskulinitate berriena.

### *Ondorioak*

Ondoriorik nagusia instantzia poetikoak generoarekiko azaltzen duen sentiberatasuna da, eta emakumeen lekuan jartzeko une oro egiten duen ariketa, genero indarkeria, prostituzioa eta halako gaiak aipatuz eta kritikatu. Baina ekarpenik handiena, amatasunaren eta aitatasun berrien inguruan proposatzen dituen elkarrizketetan dago. Horrela, amarentzat eta umearentzat zer izango den galdetzera gonbidatzen du aitatasunak instantzia poetikoa. Amatasuna

goraipatzen du, eta isiltasunetik ateratzeko, monumentuak proposatzen ditu eta, azkenik, aitatasun berrirako bideak irekitzen ditu semearekin berbetan eta, aitaren bizitzaren azken hondarrean, harekiko harreman estu eta maitasunezkoa erakutsiz.



## **Aurelia Arkotxa eta Tere Irastortzarekin solasean**

Amaia Alvarez, Onintza Irureta eta Josune Muñoz

**“Emakumea eta literatura”, Jakin 45, 1987, 9 emakume bildurik... Oraindik eta hemendik ikusita zer zen gertatu ari zena, zein ondorio ekarri zituen?**

**TERE:** Noizko kontuak! Orduan sentitu nuenaz eta oraindik eta hemendik ondoriozta dezakedanaz ari naiteste. Ordu hartako, geure ttipitasunaz eta ardura sentsazioaz gogoratzen naiz. Neure ttipitasunaz gogoratzen naiz lehenik. Egia, ordurako bost poema-liburu argitaratuak banituen ere, eta Españako Kritika Saria jaso eta. Jakin garrantzia eta estimu handitan neukan. Juan Mari Torrealdeai eta Joxan Aduriz aritu ziren gurekin, baina Joxe Azurmendi baita irakaslea ere izana nuen eta irakurriak nituen eta jarraitzen nituen...

**AURELIA:** Neu mahai batez oroit naiz, seguru aski Jakin-eko egoitzan, eta emazte batzuek JM Torrealdairen inguruan. Hor ez zen emazte-talderik, ez elkarren arteko kidetasunik, ez emazteen arteko gogoeta kolektiborik. Ene kasuan, arras bazterbideetarik hurbildu nintzen. Torrealdairei baietz erantzun nion Jakin aldizkaria ezagutzen nuelako, besterik ez, eta haien jarrera politikoarekin bat egiten nuelako.

Kritikoaren rolean agertu nintzen, beraz, Jakin 45ean, zeren idazle bezala ez nintzen existitzen: ordura arte Maiatz aldizkarian soilik testu konfidentzial batzuk nituen publikatuak. Ondoko hamarkadan dut lehen liburua agertuko

(Atari ahantziak, Pamiela 1993), eta ekitaldi hori da ene lehen azalpena euskal idazle bezala.

**TERE:** Sortzetik teorizatzeraz bada alde bat, eta neurez, neure sorlanetik teorizatutakotik eta gizartean zegoen eskakizunaren arteko aldeaz oso kontziente nintzen. Horiek horrela hautatu nuen nekienaz aritzea, gizonetzkoek erakutsi zuten emakumezkoen irudiaz aritzea, alegia. Tipitasun horretatik ikasi nuen erantzun bat eman beharko niokeela, neurez natural sentitzen nuenari, batez ere, emakume izateari eta euskaldun izateari.

**AURELIA:** Jakin 45. zenbakiko Arestiren antzerkigintzan zer-nolakoak diren pertsonaia femeninoen tipologia izan zen hautatu nuen gaia. Gai orokorra “Emakumea eta literatura” kasko gainetik iragan zitzaidan egia erran...

**TERE:** Jakineko ale hark ekarri zigun batera eta bestera ibiltzeko arrazoi nagusi bat, eta ordu hartan ezagutu eta harreman garrantzizkoa bideratu nuen hainbat emakume idazlerekin. Batez ere Itxaro Borda eta Laura Mintegirekin, baina baita zurekin ere, Aurelia.

**AURELIA:** Pertsonalki ezagutzen nituen idazle bakarrak Tere eta Laura ziren, Itxarorekin batera Maiatzen ezagutuak. Baionan eta/edo hegoaldean, Itxaro, Tere eta Laura garai hartan idazle konfirmatuak ziren, nahiz leku ezberdinetan bizi ingurumen eta giro berdinekoak ginen. Arantxa Urretabizkaia, berriz, noizbait entrebistatu nuen Maiatze-ko solasaldietan, ez naiz oroitzen 1987 baino lehenago ala justu geroago. Urretabizkaia aitzindaria eta ereduaren zen.

**TERE:** Nik hogeitasei urte nituen eta ezjakin handia nintzen aspektu askotan, baina gure aurretik idazten ari zen hainbat emakumeren obraren irakurle eta behatzaile



ere egin nintzen harrez gero. Oso gogoan dut Amaia Lasa, Arantxa Urretabizkaia edota Mariasun Landa guk baino jasoagoa zutela feminismoaren gaitasun eraldatzailearen sena. Niri bederen hala iruditzen zitzaidan. Eta aldi berean izugarritzko errespetuarekin tratatuak izan ginelakoan nago.

Uste dut Jakin bezalako talde batek ordezkatzeko garaia hartuko izpiritu bat, urteekin galtzen bezala joan ere egin dena. Esku-zabaltasun bat, espazio eta eremuak irekitzeko joera bat, eta ez hainbeste gotorleku batzuei eutsi beharra eta ironiaren izenean beste batzuk baztertu beharra.

Bestalde, oraindik, uste dut, garaia hartan izan dela gizonetzko belaunaldi bat, oso kontzientea izan dena genero-harremanak aldatu beharraz eta sarri emakumezkoek ez duguna bistan jarri. Lagun izan ditugu eta ez etsai; gizon horietako askok eta askok ere sentitu dute andre-gizonen eskubide berdintasuna bultzatu beharra.

**AURELIA:** Enetzat azpimarratzekoa da Pamielako (gizonetzko) editoreei esker naizela beharbada gaur euskal idazle. Halere, 1993ko lana enetzat idazle-aprendizgo koa droan gelditu zen. 1993tik 2001era Ipar Amerikako (berreziki Kanada) literatura-espazio esperientzietan dut enegantatu autore izatea EHTik ateraz, kanpoko idazle talde batekin gogoeta literarioan parte hartuz, ez ene sexuaren arabera, baizik eta literaturaz nituen galderen arabera eta jarrearen arabera.

Espainiar kultur sisteman generoen arteko desberdintasunaren inguruan errepikatzen diren kopuru desorekatuak agerian jartzen eta salatzen diharduen **CLASICASY MODERNAS** izeneko elkartearen lahendakariak, **Laura Freixasek**, portzentaiak argitarara ematea ezinbestekoa dela dio. **Ados zaudete? Zein kopuru azpimarratuko zenukete zuek euskal sistema kulturallean?**

**TERE:** Ez dut polemika eta elkarte horren berririk, baina portzentaje eta zenbakiei buruz edota konparazioei buruz badut nire iritzia.

Niri aurren-aurrena ezagutza interesatzen zait. Kasu honetan nork zer idatzi duen, zein bizimodu eraman duen, nolako formakuntza eraman duen... Baina horretarako, aurrena, idatzi dutena interesatu behar zait edo bizi izan dutena. Horiek horrela, euskal literatura arakatu dut, goian behean, euskal emakumeen erreferentziak aurkitzeko, baina baita beste kultura batzuetako emakumeak ere (ahozko errromantzeak, kantutegiak, haikuak idatzi dituzten emakumeak, munduan barrena idatzi duten emakumeak...). XV. mendeko orduko Espainiako erresumetako lau kantutegietako emakumeen deskribapen fisikoa arakatzeko eman nituen bi urte eta gerora ere erabili ditut portzentajeak ene lanetan. Azkena *Mujeres al borde de un ataque literario* Zurgain argitaratu nuenean ere.

**AURELIA:** Deserosotasuna eragiten didate portzentajeek sorkuntza kontuetan... Adituak badira portzentajeak eta zifrak soziologikoki edo “emazteen deretxoek” tribunatik ebaluatzeko, salatzeko eta aterabide kolektiboak proposatzeko. Ni ez naiz aditu hori... Autoreei ez zaie de

*facto* guztia eskatu behar, epaile eta partaide izatea adibidez literatura kontuetan.

Bestalde, Berdintasunaren kontua literaturan zuzentzea EIEren lana ote da bakarrik? Ez ote da kolektibitatearen lana? Genero kontuak ez ote ditu bizitza-eremu guztiak inplikatzeko? Matxismoa gizonena ote da bakarrik? Kontzientziarik ba ote da gizartean diskriminazio sexistak hezkuntzaren bitartez kolektiboki zuzentzeko? Analizatzen ote dira produkzio feministetan, unibertsitateko tesietan, idazle tailerretan, euskal kritikari profesionalek eta euskal autoreek euskal autore femeninoen ebaluatzeko erabiltzen dituzten kriterioak? Aldizkarietan, literatura-blogetan, Interneteko produkzioetan eta paperezko produkzioetan “eme-idazleez” erabilia den “doxa”? Aztertzen ote da nola “eraikitzen” den autore (maskulino) bat? Hedabideen rola horretan? Komunikazio-instantzien planteamendua? Unibertsitate-tesiena? Inkontziente kolektiboarena?...

**TERE:** Zenbakiaren zehaztasuna, proportzioa interesatzen zait... baina ondoren. Aurretik emanda distorsionatu egin dezake errealitateari buruzko gure ikuspegia. Bestalde zenbakiei begira jartzen bagara, ematen du irakurleria femeninoagoa dela, ematen du emakume gehiagok irakurtzen duela eta emakumezkoek irakurtzeko proposatzen zaiena... ez al da gehienetan estrata zabal horretara asimilatze bidea?... ez nago proportzio eta zenbakien kontra, inolaz ere. Baina neure kasuan, batez ere, intuizio bat frogatutzat emateko erabili izan dut, hara nola, salbuespenaren teoria, amodiozko literaturaren teorizazioan.

**2013. urteko zenbakiak dira hurrengoak, Euskal Idazleen elkarteakoak: 367 bazkideetatik 281 gizon eta 86 emakume. Hau da, %76'6 eta %23'4. Zuek hasi zineten garaiko zenbakiekin konparatuta emakume kopurua ia bikoiztu egin da, halere, %23'4 baino ez da. Nondik dator “emakume idazle ugari” eta “berdintasunera heltzea lortuta” dagoelako ustea?**

**AURELIA:** Hasteko, ez dut uste zifratan neurtzen denik kreazioa, obra baten kalitatea. Zer erran nahi dute sorkuntzan, artean, “produkzio urriak” eta “ibilbide laburrak”? Portzentajeen analizatzeko hor dira aditu-teknokratak... Rimbaud-ek oso “produkzio urria” eta “ibilbide laburra” ukan zituen. Eta bizi osoan bere produkzio errealak publikoki oso guti azaldu zuen Emily Dickinsonen ibilbide poetikoa ere “laburra” zela juza zezakeen haren garaiko doxa kolektiboak (maskulinoak). Zer erran bere lehen liburua (jeniala), 88 urtetan publikatu zuen Dolores Pratoren kasuaz, ez ote zuen ba “ibilbide laburra” eta “produkzio urria” ukan?

**TERE:** Lehengo aldean askoz emakume idazle gehiago dago, bistan da. Bistan da hori modu naturalean onartu daitekeela ala agian horri konnotazio bereziak eman daitezkiekeela. Baina berdintasunaren gaiak kezkatzen nau, gaia zenbakitan planteatzeaz haratago. Zein hurbildu behar zaio nori berdintsu izateko? Ezberdintasunaren pertzepzioa ez ote da aberasgarria?

Eman dezagun, XX. mende erdi alderaino idatzi duten emakumezko gehienek ez dute ikasketa prozesu normalizaturik izan. Jar dezagun Bizenta Mogel, euskal kasuan, baina berdin-berdin Virginia Woolf edo Marina Tsvietaieva, Rosalia de Castro, George Sand, Isaak Dinesen bera har-

tzen badugu. Baina hain zuzen ere, irakaskuntza-sistema horretan parte hartu ez izanak eman die beste ikuspegi libreago bat ere emakume hauetako batzuei, nahiz eta beste batzuentzat helmuga hori bera nahiko meritu izan.

Beste alde batetik, garai bertuko izan daitezke, eta emakume, Carmen Baroja edota Maria Goiri eta Perpetua Saragueta, mende laurden beranduago jaio arren. Ez ziren elkarrengandik oso urruti jaio ez bizi, baina maila sozialak, kulturalak... modu ezberdinetan erantzunarazi zioten idazteko eta jakiteko grinari. Eskubide berdintasuna eta izaera aniztasuna aldarrikatzen dut, eta emakumeek idatzi dutena irakurtzeko adina errespetua, estatistiketara jo aurretik.

**Emakume idazleei buruz pentsatzean gehienok narratzaile bat irudikatzen dugu. Zelan bizi duzue emakume poeten etengabeko agertze eta desagertzea?**

**TERE:** Bai, orokorrean, esango nuke idazlea esaten dugunean, ia beti, narratzailea dugula buruan. Narratzaileen lana, sarri, jarraikorragoa da argitalpen maila eta poetena berriz sartu-irten handiagokoa... Esango nuke zailagoa dela hiru urtetik behin poema liburu bat argitaratzen duen idazle bat aurkitzea, hiru urtean behin nobela bat argitaratzen duen idazle bat aurkitzea baino (eta ez dut horrekin esan nahi genero bat bestea baino zailagoa denik, inolaz ere).

Gero, egia da, literatur sistemak eta euskal literatur sistemak ere etengabe bultza egiten duela idazle guztiak narratziogintzara lerratzeko. Nire aldetik errazago ikusten dut nire burua antzerkian edota saiakeran ere, baina genero hauek ere ez dira sozialki hain arrakastatsuak eta sarri irakurleriak ez du ezagutzen gure ibilbidea narratzaileak ez bagara, izan, geure ibilbidea badugun arren. Maila horretan

ez dut uste emakume poeten etengabeko agertze eta desagertze bat dagoenik. Ziurrenera argitaratze erritmoak ezberdinak dira eta gure irakurleria ere bai. Eta poesia ez dago literatura industriaren erdigunean.

**AURELIA:** Gaizki kokatua naiz erantzuteko poesiaz versus narrazioaz. Poesia narratiboa baitut idazten...

**Ez dugu irakurketa biktimistarik egin nahi. EIE, adibide baterako, antolatzen dituen ekitaldietan emakumeen parte hartzea eta ikusgarritasuna areagotzen ahalegintzen ari da. Uste duzue literatura sistemak berez orekatzen direla?**

**TERE:** Ez dut sentitu sistematikoki emakume izateagatik aukerak irabazi edo galdu ditudanik. Beste gauza bat da, hala ere, begiratu gabe begiratu edo irakurri izan gabe irakurri izan nauten irudipena dudala, alegia, aurreiritzi askoren ondoren, egin edo esateko izan nezakeena jakintzat eman ohi dela sarri, emakume izateagatik, hain zuzen ere.

Bestalde, ez nago sistematikotasunaren aurka, baina, batez ere libertatea eta sortzeko espazioa aldarrikatzen dut; direla libertate eta espazio indibidualak ala taldekoak. Euskal literaturaren sistemaren inguruan neuk baino borroka sistematikoagoa eginagoak izango dira asko, ziurrenera. Ez dut neure burua ikusten hori ebazteko eta erabakitzeko moduan, hala ere, ez dut hain garbi euskal literaturaren sistemarik dagoenik ere, nola eta dagoenari sistema deitzen ez diogun.

Hori bai, irizten diot euskalgintzatik eta idazlegintzatik ez zaiola behar adinako garrantzirik eman euskal literaturari eta ez eta euskal idazleari ere, oro har. Eta euskal idazleriaren gainean “egin behar” gehiegi izan dela. Eta hein horretan, literaturak berez dituen balioei irakurleek ga-

rrantzia eman badiote ere, literaturaren inguruneak ez dio trazarik hartu ere egin, sarri.

**AURELIA:** Sozietateek, kolektibitateek (ez EIEk bakarrik) zaindu beharko lukete, hezkuntzaren bitartez, krea-zioa denentzat, berdintasuna bermatuz populu osoarentzat. Kontzientzia kolektibo horren sustatzea pazientzia luzeko lana da, ez da pala mekanikoaren brutokerian egi-ten den zerbait. Sorkuntza, artearen amodioa nesketan eta mutikoetan delikadeziarekin da zaintzen. Nesketan bereziki, libertatearen kapazitatea pizturik atxikiz. Libertateak du sorkuntza sustatzen eta *viceversa*. Sortzaile batek zentsoreak pikutara igortzeko libertatea du. Zergatik jakin behar ote du idazle batek, faltarik gabe eta denek baino hobeki, “literatur sistemez”? Sortzaileak deretxo guztiak ditu sistemak ipurdiz gora botatzeko, “ez” errateko. Horregatik, nik ez dut batere ulertzen “biktimismo” kontu hori. Eneztat sorkuntza dionisiakoa da.

**Tere, 2002 urtean EIEko lehendakari hautatu zintuzten. Ikuspuntu ezberdina ekartzen du erakunde edo elkartee-tatik lan egiteak?**

**TERE:** Elkarte eta egitasmo batzu-batzuetako partaide eta sortzaile izan naiz eta banaiz, izan. EIE da neu idazle izaterako existitzen zen elkarte eta lehendakari izan aurretik ere ezagutzen nuen. Adinarekin uste dut behatzaile ere bihurtu naizela, partaide izateaz gain.

Gazte nintzenean (eta geroago ere) hainbat elkarte sortu beharra ezagutu dut, helburu eta egiteko batzuk bete-behar-rrak eraginda. Gerora, elkarte hauetako batzuk bete-behar batzuetara bideratu orde, espazio batzuk okupatu eta go-torleku ere bilakatzen antzeman ditudalakoan nago.

Bilakaera horretan, sarri, diru-iturrien arazoa dago. Elkarre bat burujabe ez den heinean deialdi eta laguntzen menpeko izan daiteke, adibidez. Demokrazia arazo bat ere badago, kultur elkarreetako ordezkariak organuak hautatu egiten direlako, baina eguneroko funtzionamenduan elkarre horietako antolaketa hartu dezaketelako gestioaren lidergoa eta ez bazkideek, nahiz eta gero batzarraren aurrean bazkideena izan ardura. Demokrazia arazo bat ere badago, beste hainbat talde eta elkarreetako interesak beti ordezkariak baldin badaude eta hainbat ordezkariaren erabakigunea ez baldin bada elkarrearen ordezkariak organu-gorena, toki hori okupatzera bultzatzen dutenak baizik. Urteak pasa ahala horrelako joera bat antzeman dut hainbat elkartetan. Ez dut ukatuko. Maila horretan EIE bezala nire bizitzan ikasi dut behatzaile hobea izaten.

Lehendakari izan nintzen oso egoera gogorra bizi izan nuen eta erasotua ere sentitu nintzen. Baina gai haiek EIEko aktetan eta txostenetan jasoak geratu ziren eta uste dudanez, elkarrearen baitan egin behar dira hausnarketak.

Orokorrean esango nuke EIEren helburuak eta baliabideak sendotzen eta literaturaren berri gizartean zabaltzea izan genuela helburu. Hau horrela esatea ez da asko, baina azpimarratuko nuke urte haietan EIEk erosi egiten zituela orain dauzkan azpiegiturak Bilbon lortu zuela BFArekin adostuta beste egoitza bat, eta Euskal Herri mailako antolaketa bat egitea ere lortu zuela, berez zituen baliabideak hobeto antolatuz. Aldi berean, egitasmo asko jarri ziren abian eta uste dut jauzi bat eman genuela... baina hori ez zen galdera, ezta?...



**Aurelia, Ipar Euskal Herrian, zelan bizi duzu aztertzen ari garen guztia? Zeu hiru eleduna zarenez gero, hiru literaturara sistema ezberdin ezagutzen dituzu. Orain arte aipatutakoa frankofoniarekin alderatuko zeniguke?**

**AURELIA:** Nik eleaniztasuna eta kulturantzitasuna molde naturalean bizi ditut. Unibertso ezberdin guztiak ene baitan dira, ezin bereziak. Hiru eleduna naiz haurtzarotik, baina geroztik osatu da. Urteetan zehar, zabalduz eta aberastuz joan dira geografia intimoak. Bestalde, ezin dut ene burua “Iparraldekotzat” jo. Frankofonietan ere ez da mugatzen ene idazle-esperientzia.

**Emakume idazleen lanek emakumeen gaiak ekartzen dituzte gehienetan. amatasuna, haurdunaldia, alabatasuna, ahiztatasuna, emakumeen arteko hartu-emonak, gure gorputzekiko harreman korapilotsuak, gure desira eta sexualitatea, hilekoa... Euskal literaturara ekarritako gaiak dira? Nahikoa da hauek jorratzea? Zein beste sartuko zenuke zerrenda honetan?**

**TERE:** Hasteko, arestian aipatutako gai-zerrendan bi azpi-atal bereizi daitezke. Alde batetik, giza-harremanak aipatzen dira. Harremanen eraikuntza antolaketa modernoan bizimodu publiko-pribatu arteko gatazka bat bada, hasteko. Eta definizioz, esan daiteke, narrazio-dramatikan giza-harremanetan oinarritzen dutela bere idazketa; eta hori ez dago lotuta emakumeek bakarrik edo bereziki emakumeek idatzitako literaturarekin; literaturaren eta fikzioaren beren-berenezko osagarria baita.

Gorputzari buruzko norbere jarrera da nortasun eta identitatearen ardatz funtsezkoenetakoa eta hor ere nortasun-korapiloak dira literatura gai nagusiak, genero gehie-

netan eta erromantizismoaz geroagoko literaturan ez gutxiago. Horregatik edo, ez dakit formulazioarekin berekin erabat ados nagoen. Uste dut erredukzionismo handi batetik abiatzen dela. Horiek, horrela, berez direlakoan nago edota hala sentitzen dut neuk ezagutzen dudana literaturan, dela Euskal Herrikoan dela Euskal Herriz kanpoan.

**AURELIA:** Seguru aski, arrazoi sendoak badira sozialki euskal idazlesek (hots emeek) beren gorputzaz, “gorputzaren azalaz” idazteko. Ene ustez, autoresek denetarik idatzi behar dute. Mugarik gabe. Driveatzea beharrezkoa da idazlesarentzat.

**TERE:** Gaia beste ikuspuntu batetik tratatu izan da euskal literatura modernoan. Arantxa Urretabizkaiaren *Zergatik Panpox*-ek egundoko astindua ekarri zuen euskal literaturara, eta ez gutxiago X. Gereñoren *Andereño* nobelak, non ezkongabe izanik ikastola bateko andereñoa haurdun geratzen den, edo X. Garmendiaren *Historia triste batek*, zeinetan egileak (orduan apaiz) emagaldu bat jartzen duen protagonista. Arantxa Urretabizkaiaren nobelak adina erabili zuen garai modutsuan gorputza Saizarbitoriak (*Egunero hasten delako, Ene Jesus...*). Egileetako bat emakumezkoa da eta besteak gizonezkoak.

Beraz esan behar da gai horiek ez dituztela emakumezkoek bakarrik erabili, nahiz eta feminismoak, agian, begirada luzez pausatu izan duen gai horien inguruan. Esango nuke euskal literaturan ere gai guztiok darabiltzagula eta neuk ere erabili ditut gaiok, baina ez emakume naizelako, idazle izan nahi dudalako baizik.

**AURELIA:** Ene eskrituran espazio-eremu konkretu batzuei lotuak direlarik pertsonaia femenino batzuk, aipatu izan ditut zenbait gai.

**TERE:** Honen hurrengo galdera bat izan daiteke ba al da begirada berezirik emakumeen kasuan? Eta baldin bada, zenbateraino dagokio emakume izateari, zenbateraino garai edo klase bateko izateari, zenbateraino emakumearen egoera sozialari?

Akordatzen naiz adibidez Itxaro Bordaren lanaz. Gai horiek agertu agertuko dira bere literaturan, baina baita bere lehen liburuz geroztik ere kritika politiko-kulturala ere konstante bat izan daiteke (hala *Basilika*-n nola *%100 basque*-n). Baina ezin ahantzi amodiozko literatura egin duela, ironia erabili duela, kultur-erreferentzien aniztasuna, lurra-rekiko eta eguratsarekiko atxikimendua... Edo har dezagun Amaia Lasa, geure aitzindari hainbat gauzatan, eta poesia anitz idatzi duena eta feminismoaren defendatzaile sutsua. Baina aldi berean asko idatzi du, adibidez, nazioarteko politikaz Zeruko Argian. Eta orduan ez al zen bada emakume idazlea izan?

Literaturak berak eskaintzen duen altxorrik ederrena izan daiteke irakurketa-aniztasunaren posibilitatea. Ona da literaturaren eta kulturaren irakurketa feminista egitea, noski, baina ez da komeni irakurketa hori eta emakumezkoek idatzi dutena gainjarritz, begi bakarrez munduaren alderdi anitzak estaltzea.

**Emakumeen begiradari buruz askotan hitz egiten da. Beste ikuspuntu bat dakarrela literaturara esaten da. Bat egiten duzue iritzi honekin?**

**TERE:** Ez dakit zehazten nola, baina orokorrean bai uste dudala emakume batzuk bestelako ikuspuntu bat ekarri dutela literaturara, gizonezko batzuk adina. Guzti honetan canon-a hartu behar da kontuan. Literaturaren sistemaren azterketa soziologikoari, ekonomikoari edota antropologikoari dagokie gehiago. Maila horretan, zenbaki bidez hainbat ondorio ateratzea erraz da; Ibon Sarasolak 1982an gaztelaniaz argitaratu zuen *Historia social de la literatura vasca*. Aurretik *Euskal literatura numerotan* emana zuen Krisellun. Eta haren aurretik Juan San Martinek idatzia zuen *400 escritores euskéricos*. Eta urtez urteko eta generoka banatutako zerrendatze eta analisisetan horretan jarraitu dute Joan Mari Torrealdaik eta Juan Luis Zabalak.

**AURELIA:** Bai eta ez. Egia da eta ez da egia. Bizi-esperientzia ezberdinak baldin badira, noski literatura-produkzioan azal daitezkeela ezberdintasunak. Eta aberasgarria iduritzen zait hori. Gero, eni literatura nahiko unisex dela iduritzen zait oro har. Marguerite Yourcenarren *Hadrien* idazlesa batek idatzia dela non sumatzen da?

**TERE:** Baina idatzi dena irakurtzen hasteko garaian dator irakurkera edo begiradari buruzko galdera. Zer idatzi du eta nola, honek ala beste hark? Zer bilatzen du momentu jakin batean idaztea erabakitzen duen emakume batek, helburu bera ote dute emakume guztiek? Eta zer bilatzen dute momentu batean argitaratzen dutenean?

Nik uste dut emakume askok munduarekiko begirada zorroztu bat izan dutela, eta begirada horrek beste idazketa bat moldatu ere egin duela, kasu batzuetan. Emakume izatea nahiko izan da buru-argi ziren emakume horientzat bere izatearen dibergentziaz jabetzeko. Honetaz ondoen,

aro modernoan, V. Woolfek teorizatu zuen eta teorizazio horretatik edan du feminismoak denboratan, baina, aldi berean V. Woolfen sor-lanak eskaintzen duen aberastasunari erreparatuz, V. Woolfek begi kritikoa zuen emakumeek bere garaian garatzen zuten harreman eta elkarrizketa sozialaren arteko jakintzaz, eta bere mundu esan-ezinen arteko hausturaz. Egoera bertsuak deskribatu zituen Tolstoik *Ana Karenina*-n edo bere gaztaroaz idatzitako saiakeran, saloiez ari zelarik. Baina V. Woolf emakumearen begirada, Woolfena bakarrik da.

Poesian, Marina Tsvietaievak bere esaldietako hitzen ordena, hitz bakoitza isolatzeko moduarekin edota, Szymbroska, Nelly Sachs, Ajmatovak zirkunstantziarik errealenak eraman dituzte literaturara. Edota Hanna Arendt pentsalaria dugu beste kasu ikusgarri bat, Maria Zambano, Lou Andrea Salome bezalaxe... Ez dira beti eta bereziki tratatzen dituen gaiak emakumearekin lotuta daudelako, baina beraien mendean eta egoeran emakume izanak, ziurrenera, lagundu die beste ikuspegi batetik begiratzen munduari eta beste mundu bat aurkitzen eta ulertarazten.

Margarita Nafarroako erreginaren *Heptameron* bera dugu gure artean ahaztutako eredueta bat, eta hori erregina izanik. Baina guzti horrekin batera ez da ahaztu behar emakume askok eta askok ez dutela dibergentzia hori aldarrikatu, besteak beste, bizimodua ateratzeko asko saldu behar delako eta irakurlearen espektatibak asetzeko bideak bilatu behar direlako. Corin Tellado, Bizenta Mogel, Julene Azpeitia, Agatha Christie, Isaak Dinesen...

Aldatu dena, batez ere, esango nuke, emakume idazle interesgarria osatzen dutenen zerrenda da; eta alde horretatik

beti zerotik hasten ez garen sentsazioa ematen duen lagun andana handitu izana azpimarratuko nuke. Zerrenda hori, gainera, nire ustez, ez da interesgarria emakumeentzako bakarrik, bakarrik emakume feministentzat edota emakume idazleentzat, baizik eta literaturaren bidez, pentsamenduak, sentipenak komunikatzeko eta garatzeko posibilitatea jorratu nahi duen edozeinentzat, andre edo gizon.

**Lehenago aipatutako zenbaki desorekatu horien arrazoi nagusietariko bat mendeetan zehar izan dugun sexu/genero sistema da eta honek ekarri dituen botere harreman, diskriminazio eta rol banaketa. Uxue Alberdi eta Ainhoa Agirreazaldegi bertsolariek plaza oraindik emakumeena ez dela erakutsi dute. Plazan egoteko zailtasunak nola azalduko zenituzkete zuek?**

**TERE:** Gainerantzean, uste dut bertsolariak plazan jartzeko zailtasuna eta geurea ez dela berdin-berdina. Arrazoi dute, ene ustez, Uxue Alberdi eta Ainhoa Agirreazaldegik eta neuk ulertzen eta dakidan heinean, egoera hori aski lotua dator bertsolaritzaren izaera publikoarekin. Alegia bertsolaria jende aurrean ari da kantuan eta jokuan, eta ez da bakarrarentzat ari. Azkenik, gehientsuenetan, gai-jar-zailerren bat bideratu ohi du saioa. Hiru faktore horiek bereizten dute idazlearen jardueratik beste gauza batzuen artean, bapatekotasunaz gain, aldi berean gertatzen direlako, eta definitzen hain zel bihurtzen ari den mundu pribatu/publiko esparru ezberdinetan gertatzen direlako.

**AURELIA:** Erabat akort Uxue Alberdirekin eta Ainhoa Agirreazaldegirekin. Eta gehi daiteke, bertsolaritzaren esparruaz diotena edozein kreazio-eremura aplikatu daitekeela. Emazte anitz aisialdietarik ez dira ateratzen, pintura

ikasten edo idazle tailerretan aisialdian dira ibiltzen. Baina “gauza serioak” hasten direlarik, kreaioa serio bilakatzeko delarik zer gertatzen da? Non dira emazteak, non dira neskek? Eta zergatik ausentzia hori sortzaile eremuetan? Alderantziz, zergatik emeen presentzia hain da anitza literatura-aktoreen (maskulinoen) laudatzeko, sustatzeko, hitz batez eraikitzeko via hezkuntza, ekitaldi publiko eta abar? Konklusioak batek atera bitza.

**TERE:** Maila horretan esan nahi nuke emakume idazle izatea mediatizatzen ere ezagutu dudala hainbat argitaletxetan, eta hainbat argitaletxek, agian, oso garbi dutela zer eta nola idatzi behar duen emakumezko batek, emakume izateko promozionatua izateko. Ez dakit. Esango nuke irudipen bat dudala horrekiko. Eta bistan da bere burua kritikarizat hartzen duten askok ere –euskaraz hitzok ez dute generorik, beraz generikoak dira– oso buru “maskulinoa” izan dutela, paternalista batzuetan eta mezpretsutzailea besteetan. Adibide garbiena sariekin ere gertatzen dena aipa daiteke. Emakumezko batek sari bat irabazi eta gizonezko batek sari bera irabaztearen artean ikusi izan dut. Neuri gertatutakoa jarriko dut adibide gaia zaharra izan arren. Espainiako Kritikaren Saria jaso nuen nire lehen libururarekin. 1980ko hamarkada zen. Krutwigek atera zuen xestra... antologikoa izan zen. Baina gure garaietara etorritan iruditu izan zait sarri emakumezkoek jasotako sariei ez zaiela eskaini izan ibilbide berbera, proportzionalki, argitaletxe eta kritikoen ikuspuntutik; alegia, sariek balio bat izan dutela ezagun zen idazle bat (gehienetan gizonezkoa) premiatzeko, baina kaltegarri ere izan zaizkiela hainbat emakumeri sari horiek berberak, baita promozio gisara ere.

Eta zer esan publikoaren ikuspegitik... Jar gaitzke kritika mailan. Bertsolaritzak, sariketetan salbu, bapateko erantzuna du. Idazle askok batere ez. Eta hor ere egon daiteke andre-gizonen arteko bereizketa bat, neure kasuan sentitu ez dudan arren. Alegia, gizonetzko baten lana edozeinek goraiatzan badu ongi-etorria da; baina emakumezko bate-na beste emakume batek goraiatzan badu... lagunarteko xera baten itxura hartu ohi zaio. Xera edo kera ideologiko baten islada da, noski.

Baina ez dut hori patroï orokorra dela esan nahi. Nire bizitzan gizonetzkoen artean asko mugitu naiz, eta esango nuke gehiengoa errespetazkoa eta behar bezalakoa izan dela, eta litekeena da horregatixe geratzea nabarmen horrelako kasuak. Euskaldunok hainbestetan esaten dugun bezala, horrelakorik “ez denik ez da sinistu behar”.

**Egun lau emakume-belaunaldi ari dira aldi berean literatura sortzen gurean. Zer ekar lezake honek? Ados zaudete Laura mintegik esandakoarekin, “Emakume gazteek ez dute aita/ama hiltzen, oso pragmatikoak dira”?**

**TERE:** Lau belaunaldi? Jas! Eta zorionak! Ez dakit hala bada geurea zenbatgarrena izango den.

**AURELIA:** Zenbait “belaunaldi” ari ote daitezke “aldi berean literatura sortzen”? “Aldi berean” ari baldin badira, hots “denbora berean”, “garai berdinetan” bizi baldin badira eta produzitzen badute ez ote dira denak “belaunaldi” berekoak? “Lau emakume-belaunaldi”ren ikustea ez ote da espejismo hutsa?

**TERE:** Aurren aurrena, lau, hiru edo bi izan, poz handia sentitzen dut idazleen artean emakume asko ari delako, eta gainera, tartean ez delako gertatu belaunaldi baten eta



hurrengoaren arteko eten nabarmenik. Horri esker, esan genezake azken berrogeita hamar urteotan euskaldunok ere mendebaldeko joera gehienekin batera egin dugula bidea; esango nuke honek normaltasunarekin identifikatu beharra ere ekarri duela.

Laura Mintegik esaten duenarekin ados nago, neuk uste ez badut ere, aurrekoari aurre egitea beharrian unibertsala denik. Adostasun horretaz, hala ere, egingo nuke ñabarduraren bat edo beste, batez ere pragmatismoaz.

Gure ondorengoek gu hil ez izanaren arrazoi bat norbere buruon mespretxua izan daiteke. Euskaraz idazten duen jende askok ez du euskal ondarea ezagutzen, eta ezezagutza hori onartu ordez, dugun ondarearen mespretxuzko joera inkontzientea garatzen da. Badirudi idazle batek, eta euskal idazle batek, zer ikasia beti kanpoan bilatu behar duela, badirudi beti canonean sartutakoak direla hobeak. Maila horretan euskaraz idatzi eta gainera emakumezko garenok... aintzat ez hartuak izateko boletu guztiak dauzkagu. Bestalde iruditzen zait Laura Mintegik esaten duenari beste hari batetik ere tira diezaiokegula. Feminismoak ere behar ditu bere oinarri unibertsalak, ulergarriak, hedagarriak... eta geu emakume izanik euskaraz idaztea hautatu dugunez, batzuentzat, lokalegiak izan gaitzke.

Eta guztiz kontrakoa gertatzen dela ere esango nuke, zeren eta arestian aipatutako mespretxuaren ondorioz euskal emakume idazleok ere ez baitugu beharbada geure ondare mitologikoa eta kulturazkoa behar adina zabaldu, eta ez baikara gure ondareaz eta geuk ere kolektiboki egin dezakegun hausnarketaz behar bezain kontziente izan.

**AURELIA:** Laura Mintegiren erranari berriz, iruditzen zait buelta ematen ahal zaiola arras molde ezberdinean... Merezi du gogoratzea euskal plazan (Iparraldeko plaza-tik hasiz) Itxaro Borda “emakume gazteak” duela euskal gizarte patriarkalean lehen ostikoa eman aita sinbolikoki hilez *Basilikan* (Susa 1984). 2014ko galdera honetan *Basilika*-ren ez aipatzeak seinalatzen du amnesia egiten ari den lana. Ez da seinale ona.

**TERE:** Hala ere, neure esperientziara etorritz, uste dut, argi eta garbi, neuk ez dudala nire aurrekoak hiltzeko eta ez eta jipoitzeko joerarik izan, eta neure adinkideekiko agian bereziago sentitu naizela aurrekikoez baino. Sentitu izan dut eta sentitzen altxor baten jasotzaileak garela. Altxor hori euskara da eta batez ere aurrena ahoz eta familia eta gizartean jaso dugun euskal kultura; horrekin batera kontzientzia argi bat ere hartu izan dugu: euskal irakaskuntza, euskal literaturaren egituraketa, gure aurreko beste batzuek jaso (altxatu), eta geuk berriz jaso (gorde) beharreko eta gero itzuli eta eman behar den altxorra da guretzat.

Herri txikia gara, eta gure historian eman diren eta ematen diren urrats galantak eta eman dituztenak, geure bidegileak gogoan atxikitzeko borondate pixka batekin jakintza handi bat erreskata daiteke. Neuk eta neure inguruan sarri sentitu dudan esker on honen ondoan ere, ez dut ukatuko bestelako joerak ere antzeman ditudala, ironiaren izenean norbere itzala luzatzeko, besteena zanpatu beharra adibidez. Baina orokorrean, uste dut, kontzientzia horrek ere frenatu egiten duela debaldeko ironiaren erabilera.

**Nola baloratzen duzue gaur egungo euskal kultura? (poesia emanaldiak, zinema euskaraz, euskal musika, antzerkia,...)**

**TERE:** Egia esan euskal literaturari egiten diot jarraipenik, eta batez ere poesiari eta zerbait musikari. Alde handia dago. Ni euskaraz idazten hasi nintzenean euskaraz urtean argitaratzen zen guztia irakur zitekeen, edo nik behintzat irakurri egiten nuen. 1990ko harmarkadaz geroztik hori orduan eta zailagoa egin da asko idatzi delako.

Literaturaren ikuspegitik uste dut literatura ari dela irabazten behar zuen autonomia kultur munduan. Izan ere, neu idazten hasi nintzenean artean, euskalduntze eta alfabetatzearen mende baitzegoen erabat, eta lehenago euskal politikarekin oso lotua.

Gogoan dut Bergarako UNEDen Euskal Kultur Departamentua existitu zen urteetan saiazen ginela kosta ahala kosta euskal literatura erakusten. Hasi ginen euskal idazleak eta hitzaldietara ekarri eta literaturaz ere hizketan. Ondoren esan genezake, 90eko hamarkadaren amaieratik beste zortzi edo hamar urtez, euskal idazleek ere hartu dutela bere tokia euskal kulturaren. Horretan azpimarratuko nuke EIEk aurrena eta gero Galtzagorrik adibidez idazleak ikastetxeetara eramanez eman duten jautzia, nahiz eta horrek ere, aldi berean, euskal liburugintza eskoletako ustezko beharretara gehiegi lotzea ekar dezakeen.

Euskal prentsak ere eragin handia izan du. Argia eta Egunkaria azpimarratuko nituzke. Argiaren ikuspegia, batez ere, garrantzi handikoa iruditzen zait, munduaren ikuskera hiper-politizazu eta alderdikeriaren gainetik saiatu delako beste molde bateko pentsamentuak txertatzen eguneroko errealtatean eta euskaldunon aniztasuna aintzakotzat hartzen.

2000eko hamarkadan Bergarako Idazle Eskolako graduondokoa sortu zen, eta urte berean Larrabetzuko Lite-

ratura Eskola ere bai, baita Sareinak, Skolastika... Eta guzti honek ekarri dio libertate bat idazleari eta literaturari. Neuk ezagutzen dudanagatik azpimarratu nahi nuke Idazle Eskola gradu-ondokoa dela eta bertara bi urtez larunbatero larunbatero zenbat jende etorri den idazten, irakurtzen eta norbere lanak zuzentzen ikastera. Jarraikortasun horrek sortzen dituen loturak ere garrantzi handikoak dira.



## **Aingeru suzko ezpataduna\***

Mariasun Landa

Paradisuairen garaian, aingeruak baziren eta ez ziren, ba-zeuden eta ez zeuden, agertu eta desagertu egiten ziren... Baina, nonbait, berriak ekartzeko eta eramateko arduradunak ziren; baita aginduak betearazteko ere.

Norbait aukeratu behar izan zenean, Adan eta Eba desobeditzaileei paradisia utzi behar zutela esateko, iskanbila handia sortu zen: “Egin ezazu zuk, ez, ez, zuri tokatzen zaizu...” esaten zioten elkarri aingeruek. Harik eta zerumugan aingerukote kankailu bat agertu zen arte. Oso distraitua zen, lotsati samarra eta on-puska, geroxeago ikus ahal izan zen bezalaxe. Horrela, bada, beti ilargian egoteagatik-edo, Ebari eta Adani berri txarra ematea egokitu zitzaion. Hura estualdia edonorentzat! Imajina ezazu zure etxera datozela eta esaten dizutela: “Alde egin behar duzu... Ez duzu aspaldian argindarrrik ordaindu, ezta urik, telefonorik edo etxeko hipotekarik ere...”. Gehienez, lan hori egitea egokitzen zaionari zorrotza edo gogorra izatea eskatu ohi zaio, eta aurpegi serioa jartzea. Aingeru hura ez zegoen ziur ezertaz, are gutxiago bere buruaz. Beldurra eman nahi zuen eta ez zekien, besteek kasu egitea nahi zuen baina ez zuen inongo autoritaterik. Beraz, bururatu zitzaion gauza bakarra besteei laguntza eskatzea izan zen:

Trumoiari laguntza eskatu, eta hark erantzun zion, une hartantxe, erabat lanpetuta zegoela orro eta orro eginez.

Ura kanari laguntza eskatu, eta hark erantzun zion lanez lepo zebilela punta batetik bestera joaten.

Lurrikarari laguntza eskatu, eta hark erantzun zion zehar hartuta zegoela lurrak eta itsasoak iraultzen, olatuak eragiten eta mendilerro berriak sortarazten.

Ortzian zehar pasatzen ari zen meteorito bati laguntza eskatu, eta honek erantzun zion azkarregi zihoaia abiadura gutxitzeko.

Suari laguntza eskatu eta hark, berriz, baietz esan zion, prest agertu zitzaion aingeru nahigabetuari. Suak aukera badu, laket zaio zabaltzea, pertsonalki den-dena ezagutzea, bere-berea egiteraino gainera, dena irentsi nahiko balu bezala. Eta, okasio hartan, suak ezin izan zion tentazioari uko egin. Ezpata baten forma hartu zuen, suziri zirtakari bat, aingeruak esker onez heldu ziona. Horrela, hobeto sentitzen zen, ziurrago.

Eta hantxe agertu zen aingerua, Adan eta Ebaren aurrean, suzko ezpatarekin:

– Alde egin behar duzue, fruitu debekatua dastatu duzuelako. Hor duzue bidea! –eta zerumuga ilun eta itzaltsua erakutsi zien suzko ezpata ikaragarriaren bidez.

Adan eta Eba lotsa-lotsa eginda zeuden.

Irudikatu dituzten guztietan burumakur, dardarti eta umiliatuta agertzen dira... Diotenez, une hartantxe konaturatu ziren biluzik zeudela. Eta beheko parteak pikondo bateko hosto banarekin estali zituztela.

Ea zergatik pikondo batekoekin? Nik ere gauza bera galdetu izan diot nire buruari... Zergatik aukeratu pikondo-ko hostoak, oihan tropikala zirudien lorategi trinko hartan bazeuden eta elefanteen tamainakoak, zuhaitz exotikoen hostoak, maindre baten tankeran estali zitzaketena... Eta burua, zergatik ez den esaten burua ere estali zute-

la edo oinetakoak egin zituztela zuhaitzen enbor-azalez... Kontua da, lotsaz gain, beldurra sentitu zutela. Ikara. Espantua. Lehen aldiz.

Aurrean dena zen iluna, ezezaguna, beldurgarria. Bat-batean, animalien hizkuntza mintzatzea ahaztu zitzairen, ez zuten elkar ulertzen. Elkarrekiko etsai bihurtu ziren. Ez al zegoen lagunduko zien izakirik? Ez al zegoen lagunduko zien animaliarik trantze hartan, bide berri hartan?

Aingeruak zerbait arraroa sentitu zuen, gaur egun pena, errukia, pietatea deitu ohi duguna. Iniziatiba txiki bat hartu zuen. Izan ere, inork ez baitzion esan hori egin ez zezakeenik. Gauza bat zen lana ondo egitea, eta bestea, zorigaiztoko haiek abandonatzea bitzta berri eta ezezagun haren iluntasunaren erdian, mundu lauso bihurtu berria zen paradisuari.

Egoera horren aurrean, aingeru suzko ezpataduna hausnarketan hasi zen bere kolkorako eta bere leporako; burua hazkatu zuen, eta baita oinetako plantak ere, aingeruek hausnarketa bizian daudenean egiten duten zerbait delako, eta lehoiari galdetu zion:

– Lagunduko diozu bikote honi?

– Nik, piztia beldurgarriak, babo hauei lagundu? –erantzun zion lehoiak–. Ez nazazu zirikatatu, oso-osorik jango ditut eta!

Aingeruak erleei galdetu zien.

– Paradisuarekin bukatu duten ergel horiei lagundu? Ziztadaz akabatuko ditugu!

Aingeruak gauza bera galdetu zien zaldiei.

– Horiek bizkar gainean eraman? Ezta pentsatu ere! Ostiko eder batzuk emango genizkieke gustura, jota utzi arte.

Aingeruak arranoei galdetu zien.

– Horiek airean eraman? Hori bakarrik behar genuen!  
Gogoia ematen digu eutsi eta lehenengo amildegitik behera botatzeko!

Aingeruak baleei galdetu zien.

– Horiek irentsi eta sabelean eraman edozein tokitara?  
Nola onartuko ditugu halako traidore galantak geure baitan!

Ikus daitekeenez, paradisua mundu zen ordurako.

Eba eta Adan Edengo Lorategitik irten ziren, pausoz pausoz eta eskutik helduta. Leku batean finkatu eta MUNDUA izena jarri zioten, gu bizi garen lekuan, gutxi gora behera.

Zer gertatu zen aingeruarekin?

Misio haren ondoren, erabat aldatzea erabaki omen zuen, beste bide bat hartu, patua trukatu. Hainbestearino, ezen deabru bihurtu baitzen.

Baina hori beste istorio bat da.

*\*Elsa eta paradisua* liburutik hartua.  
Edebe-Giltza. (Argitaratzeaz)



## **Amaren musupolka**

Maite Esnal Gonzalez

Maria L., bere amaren umetoki gaixotuaren bidaiari ohartu zen sexualitatea enigma bat dela. Laurogei urteko gorputzak erakutsi baitzion haragi hilkorren sustengu diren giharrak, kirioak eta zainak, gorputza bizi artean, haragi delizios bihur daitekeela.

Etzetik aspaldi joana bazen ere, aise labaindu da giltza zerrailean. Peraan izan dituen zoruko harlauzen irudi geometrikoak ateak kirrinka egin du, eta ongietorri adeitsu gertatu zaio lauki koloretsuen agerpena, mataza urduria lasaitzen hasteko balio izan zaiona aspaldian utzitako soinu, usain, eta harlauz pitzatuak berraurkitzearekin batera. Hanka puntetan sartu da, antsiari eutsiz. Eta oroitzapenen gurgil zoroan murgilduta ohartzen da danbateko bat emanda etzetik aldegin zuenetik, —zenbat urte diren ez du gogoratzen— gurasoen etxean apenas aldatu dela ezer, denak ia bere hartan jarraitzen duela. Edo, agian, sukalde pareko harlauzek bai, horiek higatuak daudela sugetzarren lako pitzadurekin.

M. L.-ren begirada ohituta dago arte-lanen argi-itzaletan paseatzera eta erretratuen misterioak arakatzera, bere ofizioa baita; horregatik erreparatu du zoruan oraindik simetria halako bat gordetzen dela poliedro bilakatutako laukietan nola hirukien gune zurietan. Detaile hutsalak poztu egin du, eta abiatu da trantsituan aurrera kolokan dauden harlauzak zapalduz. Izatez dramatizaziora emandako emakumea izanda, iruditu zaio lurra oinazpian ikaraz dabilkiola, izan ere, ez zaio xamurra suertatu jaiotetxera

itzultzea. Luizi bat darama bere baitan; beharko du lasai hausnartu baretu nahi badu erresumin gor hori. Anaieki-ko eztabaidaz geroztik ez idatzi, ez bisitatu ez dute ezer egin, denbora pasatu den arren ondo daki anaiek ez dutela amore emango, egoera etsigarria dela iruditzen zaio oraindik. Politikaz izan zuten sesioa. Bi gizonak leporatu zioten egunkari monarkiko batean lan egitea; saldukeria hitzarekin ere ausartu ziren, guraso Errepublika zaleak baino zorrotzago bere kontra azalduz.

– Literaturaz eta pinturaz informazioa ematea Errege-  
ren alde egotea diozue? Zuen nagusia gorria al da ala?

Maria L.-sutu egiten da baten batek enpresariaren ideologiaren arabera aukeratu ahal dela lana uste duenarekin; are gehiago bere anaiek bezala —bat ingeniari eta bestea kimikari Bizkaiko Labe Garaietan—, industria erraldoietan ideologiarik ez balego bezala jokatzen dutenekin.

Sesioa izan eta udazken hartan, ama telefonoa ez hartzen hasi zen, arratsaldeetan bakea nahi zuela aitzakiarekin, eta Maria L.-e iritsi zen pentsatzera urruti egotearen ondorio zela hura, larrutik ordaintzea zegokiola hemezortzi urterekin etxetik modu txarrean alde egin izana.

Anaiekin nola jokatu? Neguak giltzarrapoa bota du jada eta eguraldiak ezin tristeago dirudi, ez du laguntzen animoa aldatzen. Baina bera etorri egin da, eta Iturritxo bigarren eskubiko mundu izoztuan dago, begiz joaz aterki sorta: *txorimaloak* begitandu zaizkio. Han dago ispilu lausotua ere, azkena ikusi zuen bezain arre, aurpegi itoak edo minzuriak joak islatzen dituena. Eta han dago baita ere landare ez den eukalipto sorta lehorra, bere tristura ajatua isuriz.

Etorri da ama zaintzera anaiak erregututa. Ala amak esango al zien berari deitzea? Ez du axola; berak erantzun nahi dio egoerari, eta aurrean du lehen aproba: ama gerritik behera biluzik dago bere zain, sabelaren inguruko haragia tolesduratan eroria zahardadearen ispilu, hankarte-lotsagabeki bistan. Besoak eta zangoak salbu beti ikusi izan du amaren gorputza estalita, frankismoa jasan zuten emakume asko bezala. Gabardina erantzi bitartean Maria L.-eri bueltaka dabilkio ideia bat: bere amak uko egin zion gorputzaren plazerrari eta, hazi hori emakumearen printzipio zaindari zorrotzek ohi duten irmotasunez alabarengan erein zuen, hitz *xikinak* sahiesteko zera hitz merkea baliatuz.

Eta hain zuzen, gorputzaren parte sexual bat da Mariari etorrarazi diona, eta pentsaezina zen zerbait du aurrean: ama gerritik behera biluzik, haragi puska gorri bat dilindan duela. *Sorgin bat*, pentsatu du Goya-ren irudiak gogoan.

Eskuetako keinuek epeldu dute hasierako hoztasuna; kostata, zeren ezagunegia zaio gurasoen etxeko egongela, bizipenak oroitzapenek astunduta. Deseroso dago bere haurtzaro, nerabezaro eta gaztaroa pilatzen diren paretan artean eta, are deserosoagoa egin zaio bere aldarre txarren lekuko den sofa gorrian eseri behar izatea. Egunak beharko dira iraganarekiko erresumina ezabatu eta xamurtasuna azaleratzen joan dadin. Laurogei urteko emakumeak kariatide baten barre-iduria erakusten dio; ama-alaba parez pare, behatzak bizkarrean iltzatuta emozioen ihesbide; *etorri zara* xuxurlatzen dion bitartean.

*Prolapso vaginal* dio sendagilearen txostenak, eta sendatzeko zer egin behar den zehaztu du: *garbitu ur epelez*

egunean bi aldiz, xukatu paparezko zapiez eta ondoren Pro-tipol sei tantta bota. Azkureak izanez gero suero fisiologikoaz garbitu. Sendagilearen diagnosiak eginkizuna serio hartzera bultzatu du Maria L., nahiz eta, egoera serioa ez ezik, groteskoa ere iruditzen zaion. Baliteke errealitate desitxuratu ikustearen ikustez gehiegikeria batean erortzea orain, baina Frida Kaloren pintura gogoan, bere jaiotza irudikatzeraino iritsi da. Ordea, aurrean duenak lur jota uzten du: pubis hile soilduak umetoki eroria nabarmenago utziz txunditu egin du, *biologia abailduaren paisaia da hau*, pentsatu du.

Nor da bere ama? Zer dela-eta alaba gerritik behera biluzik itxaron duela? Mariak ezin ditu galdera hauek erantzun, ez da gauza errelato bat eraikitzeko. Gehienez ere ama ikusten du alargun libre baten bizitza aurkitu duen emakume bezala, senarrik gabe alarguntsa bizimodua eramatera deliberatua. Delibero horretan oinarritzen du, albiste txarrak ohera ez eramateko aitzakiaz, iluntzetan telefono deiari ez erantzuteko hartu zuen ohitura.

Maria L-ri, ipuin hori otu eta, egia osoa ez dela susmatu arren, gustatu egin zaio. Atsegin zaio pentsatzea esaerak dioenaren kontra laurogei urteko ama, txartu ordeztatu egin dela. Eta erizain lanari ekiteko sofa gorrian etzateko eskatu dio; botika nahasten duen bitartean, ama sendabelar zale dela gogoratuz, txantxetan esan dio: zornea ondo garbitzeko *zaingorriak egosi beharko ditugu auskalo mediku berri horrek zer agindu dizun. Non aurkituko dut inguru haue-tan?*

*Ai musupolka!* dio, barre-iduria orain irribarre zabal zurian hedaturik. Umetokia baino gehiago zakila ematen

duen haragi puxka bustitzean, supirioka hasi da. Zornea garbitzeko banandu dizkio ezpainak, barrurantz umotzen den fruituaz galdera eternalak otutzen zaizkion bitartean. Berriro ere haragi zati gorrixkaren ordez bere buru iletsua atera zeneko unea irudikatzen du, eta paisaia asaldagarri horretatik ihesbide moduan, berak ere margolaneko mirabearen antzera txarro bat eskuan duenez –*Veermer-ek pintatu Esnezalea naiz*– dio berekiko, pinportaz pinporta marrubi sail baten antza hartua duen infekzioari ur epe-la ixurtzen diola, gorputz gaixoaren frutu idorrak arreta handiz bustitzen dituela. Ai musupolka! berriz atera zaio lagun kaskarinek erabili ohi zuten hitza. Begiak handitu, zabaldu eta ñirñirtu bitartean, sofaren burniek krask hotsa atera dute etzanda dagoen alarguntsak behingoz lotsa galdu duelako, hain zuzen Maria L.-ren beraren nerabearoa eta gaztaroa hondoratu ziren sofa gorri berberean. Baita familia gorrotatu ere, aldika pinpilinpauxak bezalako ametsak agertu zitzaizkion eta, inoiz, hondoa jo zuen txalupa izan zen sofa berean.







ISSN 1130244-5



9 771130 244008

52